



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2015eko martxoaren 2a

33. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Antolamenduaren eta Aukera Berdintasunaren Zerbitzuak araudi indardunera egokitzen ez direla detektatu diren Euskara eta Literaturako testuliburuei dagokienez eginiko txostenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (2. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak Estatuaren 2015erako aurrekontuen proiektua dela-eta egiten duen balorazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, 2014-2020 Osasun Planari gehitutako proposamenetatik Osasun Batzordeak onetsitako en kostu ekonomikoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, administrazio publikoen aurrekontuetako proiektu eta funtsezko ildoen gainean AIReFek eginiko txostenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, jakiteko zergatik urriaren 15ean onetsi gabe dagoen 2015erako aurrekontuen aurreproiektua. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, jakiteko ea zer jarduketa egin diren mozio bat betetze aldera, Nafarroako Gobernuak premiatzen duena Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin basobideen arauketa homogeenoa bat adostu dezan. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Nafarroako Gobernuak gizarteratze-errenta kontrolatzeko eta iruzurraren aurka borrokatzeko duen neurri-planari buruzko txostena, Nafarroako Arartekoaren erakundeak egina. (17. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, Antolamenduaren eta Aukera Berdintasunaren Zerbitzuak araudi indardunera egokitzen ez direla detektatu diren Euskara eta Literaturako testuliburuei dagokienez eginiko txostenari buruzkoa.**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bakartxo Ruiz Jaso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Antolamenduaren eta Aukera Berdintasunaren Zerbitzuak araudi indardunera egokitzen ez direla detektatu diren Euskara eta Literaturako testuliburuei dagokienez eginiko txostenari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2014ko urriaren 17ko 111. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko azaroaren 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako Bakartxo Ruiz Jaso andreak idatziz erantzuteko galdera egin du, araudi indardunera egokitzen ez direla detektatu diren Euskara eta Literaturako testuliburuei dagokienez Antolamenduaren eta Aukera Berdintasunaren Zerbitzuak eginiko txostenari buruz (8-14/PES-00192). Hau erantzun dio Nafarroako Gobernuak Hezkuntzako kontseilariak:

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren laugarren xedapen gehigarriak, testuliburuei eta gainerako curriculum-materialei buruzkoak, honako hau ezartzen du:

1. Autonomia pedagogikoa baliatuta, ikastetxe publikoen koordinazio didaktikoko organoek hartu beharko dituzte irakaskuntzak garatzeko erabili beharreko testuliburuak eta gainerako materialak.

2. Testuliburuak eta gainerako materialak editatzeko eta hartzeko, ez da beharrezkoa izango hezkuntza-administrazioaren alde aurreko baimena. Nolanahi ere, ikasleen adinari dagokion zehaztasun zientifikora eta hezkuntza-administrazio bakoitzak onartutako curriculumera

egokituta egon beharko dute. Gainera, Konstituzioan jasotako printzipioekiko, balioekiko, askatasunekiko, eskubideekiko eta betebeharreko, eta lege honetan eta Genero Indarkeriaren aurkako Babes Osoko Neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoan jasotako eta hezkuntzajardura osoak jarraitu beharreko printzipioekiko errespetua islatu eta sustatu beharko dute.

3. Testuliburuaren eta beste curriculum-material batzuen ikuskapena hezkuntza-administrazioak irakasteko eta ikasteko prozesuaren barruko elementu guztiak ikuskatzeko garatzen duen prozesu arruntaren zati izango da. Prozesu horretan, Konstituzioan jasotako printzipioekiko eta balioekiko, eta lege honetan xedatutakoarekiko errespetua zaindu beharko da.

Hezkuntza Sailaren egitura organikoa ezartzen duen abuztuaren 24ko 132/2011 Foru Dekretuak 10. artikuluan zehazten ditu Antolamenduaren eta Aukera Berdintasunaren Zerbitzuaren eginkizunak. Besteak beste, hau aipatzen du: "Testuliburuak eta curriculumeko gainerako materialak aztertzea".

Hezkuntza Departamentuak, zerbitzu eskudunen bidez, azken sei urteetan gutxienez, alderdiren batek eskatuta edota ofizioz, testuliburuak eta curriculum-materialak berrikusten jardun du, legea beteko dela bermatzeko helburuz, horixe izan behar baitu irizpide nagusia.

Lehen Hezkuntzako "Euskara eta Literatura" arloan ikastetxe jakin batean erabiltzen zen testuliburu bati buruzko salaketa ikusirik, sinatzaileak jarraibideak eman zizkion Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiari, esku-hartzea beste ikastetxe batzuetara hedatu zedin, Hezkuntza Departamentuak zeukan informazioaren arabera testuliburu bera erabiltzen zuten ikastetxeetara, hain zuzen. Geroago, egoki-

tzat jo zen jarduketa hedatzea, Euskara eta Literatura irakasgaia emateko, Departamentuak zeukan informazioaren arabera, Foru Komunitateko ikaste-txeetan erabiltzen ari bide ziren liburu guztietara.

Antolamenduaren eta Aukera Berdintasunaren Zerbitzuak egindako txostena eta ukitutako argitaletxeek aurkeztutako alegazioak erantsi dira.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2014ko azaroaren 7an

Hezkuntzako kontseilaria : José Iribas Sánchez de Boado

(Oharra: aipatu eranskina foru parlamentarien eskura dago, Ágora aplikazioan).

Galdera, Nafarroako Gobernuak Estatuaren 2015erako aurrekontuen proiektua dela-eta egiten duen balorazioari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Gobernuak Estatuaren 2015erako aurrekontuen proiektua dela-eta egiten duen balorazioari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2014ko urriaren 10eko 108. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko azaroaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera aurkeztu du Nafarroako Gobernuak Estatuaren 2015erako aurrekontuen proiektua dela-eta egiten duen balorazioari buruz (8-14/PES-00190). Galdera hori 2014ko urriaren 1eko 2569 sarrera-zenbakiarekin erregistratu zen. Hona Nafarroako Gobernuak Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariak ematen duen informazioa:

Administrazio publikoentzat, oro har, 2015erako ezarritako egonkortasun-helburua oso zorrotza da: BPGd-aren % 4,2ko defizita.

Helburu hori lortzeko, aurrekontuak hertsiki gauzatu behar dira eta zenbait faktore bete behar dira, bereziki honako hauek:

1. Halako moldez burutzea 2014ko aurrekontu-betetzea non aurtengo egonkortasun-helburua, hots, BPGd-aren % 5,5eko defizita, lortuko baita eta abiapuntu ona izanen baita 2015eko aurrekontua betetzeko.

2. Ekonomiaren suspertze ziklikoaren agertoki makroekonomikoa sendotzea eta ekonomiak beherantz egiteko arrisku nagusiak ez gauzatzea.

Estatuaren 2015erako Aurrekontu Orokorren (EAO) proiektuan Administrazio Zentralak BPGd-aren % 2,9ko defizita aurreikusi du, Ministroen Kontseiluaren 2014ko ekainaren 27ko Erabakiaren bidez onetsitako egonkortasun-helburuarekin bat datorrena.

2015erako EAO proiektuak zehazten duenez, 2015erako EAO proiektuari erantsitako taula makroekonomikoan islatzen den hobekuntza progresiboak eragin ona izanen du zerga-oinarrien bilakaeran eta, ondorioz, diru-sarreretan.

2015ean Andaluzia izanen da Estatuak zenbaki absolututan gehien inbertituko duen erkidegoa, 1.958,16 milioi euro inbertituko baititu, guztizkoaren % 17,4. Ondoren, Gaztela eta León dago, 1.744,26 milioirekin (guztizkoaren % 15,5), eta Galizia, 1.385,78 milioirekin (% 12,3).

Horien atzetik aipa ditzakegu Madrilgo Erkidegoa, 981,20 milioirekin (% 8,7), Euskal Autonomia Erkidegoa, 364,17 milioirekin (% 3,2), Asturias, 333,43 milioirekin (% 3), Kantabria, 229,53 milioirekin (% 2), Nafarroa, 95,5 milioirekin (% 0,9), eta Errioxa, 94,87 milioirekin (% 0,8).

2014an, hasiera batean Estatuaren Aurrekontu Orokorretan 46 milioi euroko inbertsioa ezarri zen Nafarroarentzat; 21 milioi gehiago esleitu zitzaizkion UPNk aurrekontuei egindako zuzenketen bidez, eta aurten 95,5 milioi jarri dira. Ukaezina da zenbateko izendatuaren hobekuntza, aurreko ekitaldikoaren aldean.

Aurrekontuan jasotako jarduketa hauek aipa ditzakegu:

Abiadura handiko tren (AHT) dela-eta.

– Zaragoza-Castejón tarteari dagokionez:

Adierazten da 2014an amaitu dela Tuteran-Castejón tarteari buruzko informazio azterlana, eta 2015ean hasiko direla egiten Plasencia de Jalón (Zaragoza) eta Tuteran arteko eraikuntza proiektuak. Adierazten da, halaber, Trenbideen Zuzendaritza Nagusiak egin izan duela jarduketa hori eta ADIFek jarraituko duela egiten.

– Castejón-Iruña tarteari dagokionez:

2015eko inbertsio errealean eranskinean, ADIF-Abiadura Handia ataleko inbertsioetan, 36 milioi euro jaso dira 2015erako; gure hitzarmenerako 30 milioi daude aurreikusita.

– Iruña-Euskal Y-a tarterako:

Informazio azterlanaren jarraipena aurreikusi da 2015erako.

Ministerioak eta Foru Komunitateak 2011ko maiatzean lankidetzat protokoloa sinatu zuten Tuteran eta Noingo terminal logistiko intermodalen garapenerako. Ministerioak eginen ditu protokolo horretan aurreikusitako lanak.

Nafarroako ubiderako 23,9 milioi jarri dira 2015eko aurrekontuan.

Foru Komunitateari eragiten dioten eta Estatuaren 2015erako Aurrekontuen proiektuan diru-izendapena duten Nafarroatik kanpoko komunikazioei dagokienez, hauek azpimarratzen ditugu:

- A-21, Jaca-Iruña:

“Jaca Oeste-Santa Cilia” tarteari dagokionez “berraktibatzea”: 9 km dira, eta 6 milioi 2015erako

-A-23, Huesca-Jaca tartea:

“Alto de Monrepós-Caldearenas” tarteari dagokionez “berraktibatzea”: 4,1 km eta 10,7 milioi 2015erako, “Arguis-Alto de Monrepos” tarteari dagokionez jarraipena, 3,2 km eta 1,4 milioi, eta “Nuevo-Congosto de Isuela” tarteari dagokionez jarraipena. 4,4 km eta 4,6 milioi.

– LO-20 autobia:

Aurreikusita dago LO-20 autobia Recajoko lotuneraino luzatzeko eta A-12arekin lotzeko obrak amaitzea, zerbitzuan jartze aldera (Ebroko arku zubi berria barne...).

– A-68:

Gallur-Mallen eta Figueruelas-Mallen tarteari dagokionez N-232 errepidea bikoizten jarraituko da Aragoi, Zaragoza alderantz. Segida emanen lioke Nafarroan jada bikoiztuta dagoen tarteari (orain A-68 deitzen zaio). Tarte horrek trafiko handia du, batez ere

ibilgailu astunena, eta istripu ugari gertatzen dira. Aragoiko Gobernutik, eta geroago Sustapen Ministerioaren laguntzekin, kamioien bidesarirako diru-laguntza ematen ari da autobidearen Aragoiko tarte horretan, N-232ko trafikoa “arintzeko”.

– A-15:

Soria hiriburuaren eta Medinaceli arteko tarte -71 kilometro- bukatuko da. Orain dela ia zortzi urte hasi zen egiten. Obretan etenaldiak izan dira krisi ekonomikoagatik eta lur-mugimenduen fasean frantziskotarren monasterio zahar bat agertu delako; bi proiektu eraldatu ere izan dira, eta prezioen eguneratzeak, eta azken oztopo teknikoa Aragoiko autobiarekin lotura eginen duen zubi berriaren zimenduak jartzean, Jalón ibarrean.

RENFEren aurrekontuan kontusail bat dago geltokietan jarduketak egiteko (0,1 milioi euro), zirkulazioaren segurtasuna hobetzeko, material mugikor berria erosteko eta egungo materialaren gaineko jarduketarako.

Milioi bat euro inguru jarri dira Nafarroako bidaiari-geltokietan jarduketak egiteko (teledie-razleak, monitoreak eta sorgailu multzoak Tuteran eta Iruñean).

Sare arrunta mantentzeko kontusailak aurrekontuaren 7. kapituluaren daude. Foru Komunitateak 9 bat milioi euro jasoko ditu kontusail horietatik.

Orbaizetako arma lantegia birmoldatzeko jarduketak bat ere jaso da aurrekontuetan, Sustapen Ministerioaren % 1,5 kulturalaren kargura.

Aurrekoa kontuan izanik ere, gure iritziz, akordio garrantzitsu batzuk oraindik gauzatu gabe daude, denbora gehiegi hibernatuta egon diren zenbait laguntza bizkortu behar dira, eta Nafarroarentzat hil ala bizikoak diren zenbait komunikazio-azpiegitura –batzuk Nafarroan daude eta besteak autonomia erkidego mugakideetan– bultzatu beharra dago, gure komunitatea nazioz gaindiko komunikazio sareekin lotzen baitute.

Horregatik, Parlamentu-talde Mistoak, Unión del Pueblo Navarroren (UPN) ekimenez, behean azaltzen diren zuzenketak aurkeztu ditu, azter daitezzen eta positiboki balora daitezzen.

Estatuaren 2015erako Aurrekontu Orokorrei buruzko Lege proiektuaren atal batzuei:

– Inbertsio errealetan, Tiermasko lotunea - Sigüesko lotunea (A-21) tarteari dagokionez eguneratzea sartu da, 500.000 euroko hornidura-rekin.

Tarte horrek badu proiektua; 2008tik onetsita dago, baina oraindik lizitatu gabe.

Onetsitako proiektua eguneratu beharra dago, 2015erako Aurrekontu Orokorrei buruzko Lege proiektuan jasota dagoen A-1601eko lotunea - Sigüesko lotunea tartearen proiektuari egokitzeko.

Beraz, zuzenketa hau beharrezkoa da proiektu hori lizitzatzeko eta horrela jarraipena eman ahal izateko Nafarroako mugatik Tiermaserainoko tarte operatiboari. Tarte hori beharrezkoa da Esako urtegiaren inguruko egungo errepidea ordeztzeko, urtegia handitzen denean desagertu egingen baita.

Gainera, istripu tasa handiko tarte da.

– Autonomia erkidegoentzako kapital transferentzietan 2 jarduketa jaso dira.

1.- 2013ko lehen seihilekoan Nafarroako Foru Komunitateko aipaturako herrietan uholdeek eragin zituzten kalteak arintzeko diru-laguntza, 8,1 milioi euro.

Zuzenketa zenbatekoa kalkulatzeko, batu egin dira aipaturako uholdeek eragin zituzten kalteen zenbatespenak, ukitutako herrietako udalek Nafarroako Gobernu Landa Garapenerako eta Toki Administrazio Departamentuari jakinarazita-koak.

2.- 2014ko uztailan Nafarroako Foru Komunitateko aipaturako herrietan uholdeek eragin zituzten kalteak arintzeko diru-laguntza, 2,9 milioi euro.

Iragan uztailaren 4an Nafarroako Foru Komunitatean eurite handiak izan ziren. Ondorioz Baztan ibaiak segundoko 349,85 metro kubiko baino gehiago metatu zituen, 3,95 metroko mailan, eta gainez egin zuen.

Uholde horietan Baztan ibaiak “trumoi-ekaitz konbektibo geldia” deitzen zaion fenomeno meteorologikoaren ondorioz egin zuen gainezka. Gorramendiko estazioan 107 l/m² jaso ziren, horietatik 37 l/m² 05:50etik 06:50era bitartean.

Oharrik neurtutako estazioa 1985ean zabaldu zenetik Baztan ibaiak inoiz izandako emaririk handiena erregistratu zen estazio horretan, 2009ko eta 2011ko uholdeetan neurtutakoa baino handiagoa.

Urak kalte asko eragin zituen. Kale, etxe eta eraikinak hartu eta errepideak eten zituen, eta zenbait tokitan argindar hornidura ere bai. Gertaren larritasuna ikusita, Baztango eta Luzaideko udalek Espainiako Gobernuari eta Nafarroako Gobernuari laguntza-neurriak eskatu zituzten, eragindako tokietan normaltasunera itzultzeko eta kalteak arintzeko (kalteak izan ziren toki bideetan, zubietan, saneamendu sareetan eta hiri ekipamenduetan, besteak beste).

Nafarroako Gobernuak, ondorio suntsitzaileak zuzentzeko neurriak hartzeaz gainera, 2014ko uztailaren 16ko bilkuran erabaki zuen -beste puntu batzuen artean- Espainiako Gobernuari eskatzea, Barne Ministerioaren bitartez, presako neurriak eta aparteko laguntzak ezar zitezela uholdeek ukitutako udalerrri eta eskualdeetan izandako kalteak arintzeko.

Inbertsio gehiena Baztango azpiegiturari dagokie. Toki bideetarako eta zubiak konpontzeko inbertsioa da.

Horregatik, hona zer eskatzen zaion Espainiako Gobernuari: laguntzen araubide berezia ezar dezala Nafarroako herri horientzat, 2012an abenduaren 26ko 14/2012 Legearen bitartez onetsi zen araubidearen antzekoa (lege horrek presako neurriak onetsi zituen baso suteek eta beste hondamendi natural batzuek zenbait autonomia erkidegotan eragindako kalteak arintzeko), Nafarroako herrietan izandako kalteak arintze aldera (kalte pertsonal eta etxebizitza nahiz lokaletako kalte materialengatik laguntzak handitzea, udal azpiegiturretan, bide sarean eta nekazaritza zein abeltzaintzako produkzioetan izandako kalteak konpontzeko diru-laguntzak, eta abar).

– Ebroko Ur Konfederazioarentzako kapital transferentzietan 2 jarduketa jaso dira.

1. Nafarroan ibilguak mantentzea uholdeei aurrea hartzeko. 2 milioi euro.

Erkidego arteko arroetan ur jabari publikoa babestea Estatuaren eskumena da.

Nafarroan azken hamarkadan uholde asko izan dira, eta kalte handiak eragin dituzte:

Uholdeen arriskuei aurrea hartzeko, pertsonen eta ondasunen segurtasuna ahalik ongien bermatzeko eta ingurumenari, kultura ondareari eta jardura ekonomikoari horrelako arrisku naturalek ekartzen dizkieten ondorio negatiboak ahal den neurrian murrizteko, behar bezala zaindu behar dira ur ibilguak eta haien babesak, une oro, uholdea zein urtetan gertatuko ote den zain egon gabe. Horrela etorkizuneko uholdeen kalteak txikiagoak izanen lirateke.

Aurrekoa ikusirik, arroko erakunde eskuduna (Ebroko Ur Konfederazioa) ur ibilguak mantentzeko kontusail batez hornitzea proposatzen da, Nafarroan uholdeei aurrea hartzeko, honelako jarduketak eginez: tapoiak sor ditzaketan landare hilak garbitu, ibilguak dragatu edota tapoiak kendu, lubetak atzera ekarri, uholde eremu kontrolatuak sortu, babes dikeak sendotu edota handitu, etab.

2. Bardeako ubidea erabiltzen duten Nafarroako ureztatzaile elkarteen ureztaketa hobetu eta modernizatzeko jarduketaren aurreproiektua. 300.000 euro

Bardeako Ubideko Ureztatzaileen Elkarte Nagusiak, Ebroko Ur Konfederazioko Zerbitzu Teknikoekin batera, 2013an azterlan hau egin du: "Bardeako ubidea erabiltzen duten Nafarroako ureztatzaile elkarteen ureztaketa modernizatzeko sistema orokorraren ordezkoko aukeren azterketa".

Orain 50 urte eraiki ziren ureztaketa azpiegitura tradizionalak hobetu eta modernizatzeko aukerak zehazten ditu azterlan horrek. Beharrezkoa da, beraz, azpiegitura horiek egungo nekazaritzaren premiei egokitzeko eta haien eraginkortasun hidrikoa areagotzeko, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2000ko urriaren 23ko 2000/60/EE Zuzentarauak, ur politikaren arloan Erkidegoaren jarduketa esparrua ezartzen duenak, eskatzen duena betez.

Beharrezkoa da, beraz, azterlanean planteatutako aukeren zehaztapenean aurrera egitea, eta horregatik eskatzen da Estatuaren 2015erako Aurrekontu Orokorren proiektuan 300.000 euroko hornidura ezar dadila "Bardeako ubidea erabiltzen duten Nafarroako ureztatzaile elkarteen ureztaketa hobetu eta modernizatzeko jarduketaren aurreproiektua" egiteko.

Lan hori egindakoan Estatuko Administrazioa eta Foru Komunitateko Administrazioa prest egonen dira ureztatzaileen elkarteei epe jakineko (5-

10 urte) jarduketa-plan bateratua eta berari aurre egiteko finantza-formula proposatzeko.

Ureztaketaren Plan Nazionalean eta Ebro Arroko Plan Hidrologikoan ezarritakoari jarraituz eginen dira jarduketak.

Testu artikuludunaren zuzenketa gisa, xedapen gehigarri hau aurkeztu da:

"Xedapen gehigarri berria. Ebola birusean espezializatutako erreferentziako zentro nazionalak.

Hilabeteko epean, Gobernuak zehaztu egin beharko du zein diren Ebola birusak sortutako gaitasuna ikertu eta tratatzeko duten nazio mailako erreferentziako ospitaleak, Espainiako alde guztietatik gaitasun horren kasu egiaztatu guztiak jasoko dituztenak, gaixoak tratatzeko. Halaber, behar adina baliabide ekonomiko bideratu beharko ditu izendatutako erreferentzia zentrotan bat duten autonomia erkidegoetan sor litezkeen gastuak konpentsatzeko".

Zuzenketa hori egin da azkenaldiko gertaerek agerian jarri dutelako Ebola birusak sortutako gaitasuna ikertu eta tratatzeko erreferentziako zentroak izendatu beharra.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2014ko urriaren 28an

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

Galdera, 2014-2020 Osasun Planari gehitutako proposamenetatik Osasun Batzordeak onetsitako en kostu ekonomikoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Eva María Gorri Gil andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, 2014-2020 Osasun Planari gehitutako proposamenetatik Osasun Batzordeak onetsitako en kostu ekonomikoari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2014ko urriaren 3ko 105. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko azaroaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Talde Popularreko foru parlamentari Eva María Gorri Gil andreak idatziz erantzuteko galdera egin du, 2014-2020 Osasun Planari gehitutako proposamenetatik Osasun Batzordeak 2014ko irailaren 16an onetsitako en kostu ekonomikoari buruz (8-14PES-00182). Hona hemen Nafarroako Gobernu-ko Osasuneko kontseilariaren erantzuna:

Osasun Batzordeak Osasun Planari gehitutako proposamenen kostuari buruzko PES 00182 parlamentu-galderari erantzuteko, egokitzat jo da erantzuna hiru atal handitan zatitzea:

- Osasun aurrekontuaren gehikuntza progresiboaren eragin ekonomikoa, 2020. urtean BPGd-aren % 7ra iritsiko baita (80. zuzenketa)
- NUPen eskaintzari medikuntzako ikasketak gehitzearen eragin ekonomikoa (79. zuzenketa)
- Osasun Planari gehitutako ekintzek berek duten eragin ekonomikoa. (Ekintzaren gainerako zuzenketak)

1.- Osasun aurrekontuaren gehikuntza progresiboaren eragin ekonomikoa, 2020. urtean BPGd-aren % 7ra iritsiko baita:

80. zuzenketa, 184. orrialdea, Eragin ekonomikoa. Hau dio hitzez hitz:

Plan hau garatu ahala, Nafarroako Osasun Sistema Publikoaren finantzaketa gero eta handiagoa izanen da, eta BPGd-aren % 7ra iritsiko da planaren indarraldiaren amaieran, hau da, 2020. urtean.

Horretarako, Nafarroako Gobernuak, hiru hilabeteko epean, plana behin betiko onesten denetik hasita, aurrekontu-egutegia aurkeztuko du, zergen bidez finantzatua. 2015ean hasi eta 2020an amaituko da.

Zuzenketaren testuan azaltzen denez, 3 hilabeteko epea ezarriko da aipatutako aurrekontu-egutegia egiteko, eta horregatik hemen haren eragin ekonomikoaren lehenengo zenbatespena besterik ez dugu eginen.

Datu hauek hartu dira abiapuntutzat zenbatespena egiteko:

• BPGd-a:

– Nafarroako BPGd-a 2013ko urtarrilaren 1ean 18.957,2 milioi eurokoa zen⁽¹⁾

– Duela gutxi Nafarroako Gobernuak 1,1etik 1,5era igo du BPGd-aren 2014ko gehikuntzaren aurreikuspena. Tasa hori erabili dugu kalkulurako.

– Gainerako urteetarako, PwCren “Espainiako ekonomia 2003an” txosteneko iragarpenak erabili ditugu. Txosten horrek bi jokaleku planteatzen ditu, kontuan izanik lanak, lanaren kalitateak, kapital kopuruak eta produktibitateak BPGd-ari egiten dizkieten ekarpenen pisu desberdinak. Lehenengo jokalekuan 2014-2020 bitarteko hazkundea 1,6koa izanen litzateke eta bigarrean 1,9koa.

• Osasun Departamentuaren gastua

– 2013ko aurrekontuetan osasun arloko aurrekontua 856.595.556 eurokoa izan zen, hau da, BPGd-aren % 4,51, baina kontuan hartu behar da ekitaldiko gastu erreala 904.020.600 eurokoa izan zela, hots, % 4,8.

– Beste horrenbeste gertatzen da 2014ko gastu errealarekin, aurreikusten baita 928.089.194 eurora iritsiko dela (BPGd-aren % 4,8)

• Osasun arloko gastu publikoa

– Nazioko eta nazioarteko serie estatistiko guztietan, osasun arloko gastu publikoa zehazterakoan kontuan hartzen dira esku hartzen duten sektore guztiak, tartean toki entitateak, Gizarte Segurantzza, funtzionarioen MUFACE, MUGEJU, ISFAS mutualitateak, Aseguru Berezia barne, etab.

(1) Nafarroako egoera ekonomikoaren adierazleak 2014ko urriaren 31n
http://www.cfnavarra.es/estadistica/indicadores/licen_ien.pdf

Osasun arloko gastu publikorako ekarpena sektorez sektore
Osasun arloko gastu publikoaren kontu satelitea 2002-2012 bitartean

	2009	2010	2011*	2012*
Administrazio Zentrala	% 1,7	% 1,3	% 1,2	% 1,1
Gizarte Segurantzaren sistema	% 2,3	% 2,4	% 2,4	% 2,2
Funtzionarioen mutualitateak	% 2,9	% 3,0	% 3,1	% 3,3
Autonomia erkidegoak	% 91,2	% 91,8	% 92,0	% 92,1
Autonomia estatutua duten hiriak	% 0,0	% 0,0	% 0,0	% 0,0
Udalbatzak	% 1,8	% 1,5	% 1,3	% 1,2
Osasun arloko gastu publikoa	% 100	% 100	% 100	% 100

– Estatu mailan autonomia erkidegoen osasun arloko aurrekontuek osasun arloko gastu publiko osoaren % 92,1 egiten dute. Nafarroan portzentaje hori handixeagoa da, % 94,7 hain zuzen, batik-bat Gobernuak udalei egiten dizkien transferentziengatik.

– Hori dela eta, estatistika ofizialetan osasun arloko gastura bideratutako BPGd-aren portzentajea zehazterakoan, Nafarroak osasun arloko gastura BPGd-aren % 5,2 bideratzen duela ageri da.

• Osasun arloko gastuaren % 7ra iritsi arteko eboluzioaren zenbatespena

– Baldin eta, zuzenketaren testuak proposatzen duen bezala, osasun arloko gastu publiko osoa % 7 desiragarri horretara iritea nahi bada, Osasun Departamentuaren gastuak BPGd-aren % 6,6ra iritsi behar luke, eta gainerako % 0,4a beste eragile publikoei, mutualitateei eta abarrekoei legokieke.

– Osasun Planari gehitutako zuzenketak gastuaren bilakaeran izanen lukeen eragina azaltzen da behean erantsitako taulan.

– Kalkulua egiteko, progresiboki banatu dugu Osasun Departamentuaren aurrekontuaren igoera. Aurrekontu hori % 4,51tik % 7ra igo da 2014-2020 bitartean.

Urtea (urtarrilaren 1ean)	BPGd-a Aurreikuspena	BPGd-a (euroak, milioikotan) Aurreikuspena	Osasun arloko gastua, proposatutako BPGd-aren ehunekoarekin, eurotan	
			BPGd-ren ehunekoa	Osasun Departamentuaren gastua
2013		18.957,20	% 4,8	904.020.600
2014	% 1,5	19.241,56	% 4,8	928.089.194
2015	% 1,6	19.549,42	% 4,8	933.725.384
2016	% 1,6	19.862,21	% 5,1	1.020.168.959
2017	% 1,6	20.180,01	% 5,5	1.109.139.696
2018	% 1,6	20.502,89	% 5,9	1.200.696.332
2019	% 1,6	20.830,94	% 6,2	1.294.898.841
2020	% 1,6	21.164,23	% 6,6*	1.391.808.452

Gastu erreala

Ixteko aurreikuspena

2015eko Aurrek. aurreproiektua

* Gainerako % 0,4a beste eragile publikoei, mutualitateei eta abarrekoei legokieke.

Adierazi beharra dago aurrez aurre datuak behin-behineko zenbatespenak direla, azken ekitaldietako kontuak bateratu gabe baitaude.

Ikusten denez, zuzenketa honen eragina oso adierazgarria da, eta aise gaintzen du Osasun Planean berean jaso diren ekintza guztietarako aurreikusitako kostu osoa.

2.- NUPen eskaintzari medikuntzako ikasketak gehitzearen eragin ekonomikoa (79. zuzenketa)

79. zuzenketa, 161. orrialdea, Tresna estrategikoak, Prestakuntza eta ezagutzaren kudeaketa

“NUPen eskaintzari medikuntzako ikasketak gehitu beharra dago”

NUPen medikuntzako ikasketak gehitzeak oso eragin ekonomiko nabarmena izanen luke, baina ez luke zuzeneko eraginik izanen Osasun Departamentuaren aurrekontuetan. Horregatik, ez da bidezkoa haien kostua Osasun Planaren beraren garapenari egoztea

Izcue & Asociados aholkularitza enpresak Unibertsitatearentzat 2009an egindako txostenaren arabera, Nafarroako Unibertsitate Publikoan Medikuntzako karrera ezartzearen kostuari aurre egiteko, 6 urtean 18,4 milioi euroko inbertsioa egin beharko litzateke.

Azterlan horretan honela banatu da kostua: 15,1 milioi lehenengo urtean, 680.593 euro bigarrean, 644.212 hirugarrenean, 665.748 laugarrenean, 652.706 bosgarrenean eta 661.904 seigarrenean. Txostenaren arabera, inbertsioa 2,9 milioi txikiagoa izan liteke Osasun Ikasketen Unibertsitate Eskolako (edo Erizaintza Eskolako) egungo instalazioak hobetuko balira.

2.- Osasun Planari gehitutako ekintzek berek duten eragin ekonomikoa. (Ekintzaren gainerako zuzenketa)

Osasun Batzordeak Osasun Planari gehitutako proposamenen kostuari buruzko PES 00182 parlamentu-galderari erantzuteko, honako irizpide hauek hartu dira kontuan:

- Gastua eragiten duten ekintzat jo dira Ekintza Planari, tresna estrategiko berrien garapenari eta jokaleku ekonomikoaren kapituluari dagozkien zuzenketa.

- Arau orokor gisa, ez da ez egingarritzat ez egokitzen jo “Sarrera”, “Diagnostikoa” eta “Printzipioak” kapituluari gehitutako zuzenketei sortuko luketen gastua kalkulatzeko, nahiz eta ekintza desiragarriak aipatzen dituzten, uste baitugu

lehenasunezkoztat jo izan balira halakotzat zehaztu eta formulatu beharko ziratekeela Ekintza Planean.

- Inbertsio berri nabarmenik edo eskura dauden baliabideez haragokorik behar ez duten proposamenak ere ez dira kontuan hartu.

- Proposamen orokor batzuen kostua ere ezin da zenbatetsi, helburu orokorren inguruan formula-tu baitira. Horien kostua zenbatetsi ahal izateko, aurretiaz ikuspuntu teknikitik garatu behar dira ekintza plan zehatz baten bidez, eta oraingoz ez dago halakorik.

Nolanahi ere, planari gehitutako ekintza berrien eragin ekonomikoa ebaluatzeko garaian egokitzen jo da planean berean ezarritako irizpide orokorrak haiei aplikatzea, planaren eragin orokorra baloratzeke. Hona irizpide horiek: (Ikus Osasun Planaren Eragin Ekonomikoaren 11. kapitulua)

– “Osasun planaren izaera estrategikoa dela eta, bidezkoa da eragin ekonomikoaren jokalekua egitea, baina ezin da zehazki aurrekontu aurreikuspen batez mintzatu, hori gehiago dagokiolako ekintza planei eta kudeaketaren erantzukizunaren pean dagoelako”

– “Osasun Plan integrala egin nahi denez, egokitzen jo da haren eragin ekonomikoa funtzioen arabera xehakaturik aurkeztea, agerian egon dadin zer garrantzi eman nahi zaien prebentzio eta sustapen, laguntza, errehabilitazio eta prestakuntza politikei, informazio sistemen garapenari eta abarrekoei”

Ez litzateke ez bideragarria ez egokia izanen zenbait neurriren eragina xehetasunez aztertzea, neurri horiek helburu estrategikoari begira formulatuta baitaude, eta ez hainbeste helburu operatiboari begira. Ez litzateke egokia izanen, halaber, planari gehitutako ekintza berrien eragin ekonomikoa xehetasun handiagoz definitzea jada planean zeuden gainerako ekintzena baino.

Beheko taulan kalkulatu da zenbateko kostua izanen lukeen guztira, indarraldian zehar, 2014-2020 aldirako Osasun Planari Osasun Batzordearen 2014ko irailaren 16ko zuzenketei bidez gehitutako ekintza neurriak aplikatzeak. Parlatuari aurkeztutako proiektuan hasiera batean aurrekusi zen gastuaren aldean gastu berri horrek arlo funtzional bakoitzean eraginen lukeen gehikuntza ere ageri da, ehunekatotan.

Osasun Planaren behar gehigarrien zenbatespena
Osasun Planari gehitutako ekintzen eragin ekonomikoa, guztira

	Eragina, guztira	Gehikuntza (%)
Sustapena eta prebentzioa	1.200.000	% 11
Osasun laguntza	3.200.000	% 20
Errehabilitazioa		
Arreta soziosanitaria		
Informazio sistemak:	150.000	% 1
Prestakuntza	650.000	% 17
Ikerketa eta berrikuntza		
GUZTIRA	5.200.000	% 10

Sustapenaren eta prebentzioaren atalean aipagai dira tratu txarrei eta genero indarkeriari aurrea hartzeko, sexu hezkuntzarako eta nahi gabeko haurduntzen prebentziorako programa berriak eta bizimoldeak hobetzeko neurrietarako proposatu den indartze orokorra, arreta berezia jarritz kolektibo behartsuei edo gizartetik baztertzeko arriskuan daudenei.

Osasun laguntzaren atalean, itxarotzerrenden inguruko helburu berriek eta haurren hortz-haginak zaintzeko programa 18 urtera arte luzatzeak izanen dute eraginik handiena. Osasun laguntzako beste ekintza batzuek eragin txikiagoa izanen dute, eta, baliabideak egoki antolatu eta kudeatuz gero, ez lukete ondorio handirik ekarri behar aurrekontuan; esate baterako, haurdun-

tzaren borondatezko eteteen tratamendua O-NOZen, minbiziaren jarraipenerako berrikuspenen maiztasun egokia bermatzea, gaixotasun arrarotarako arlo anitzeko unitateen grapena, edo oinarritzko laguntza jarraituaren eta larrialdien erreforma.

Prestakuntzaren alorrean honako hauek nabarmentzen dira, duten garrantziagatik: prestakuntza irakasleen %25engana hedatzea, eta prebentzio eta sustapen programa berrietarako eskatuko den prestakuntza-garapena.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2014ko azaroaren 14an

Osasuneko kontseilaria: Marta Vera Janín

Galdera, administrazio publikoen aurrekontuetako proiektu eta funtsezko ildoen gainean AIReFek eginiko txostenari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, administrazio publikoen aurrekontuetako proiektu eta funtsezko ildoen gainean AIReFek eginiko txostenari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2014ko urriaren 24ko 113. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko azaroaren 19an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du jakiteko ea Nafarroako Gobernuak zer balorazio egiten duen AIReFek egindako "Administrazio publikoen aurrekontuen proiektuei eta lerro nagusiei buruzko txostena" dela-eta, eta informazioa jasotzeko txosten horretan adierazitako baldintzen betetzeari buruz (8-14/PES-0194). Galdera hori 2014ko urriaren 16ko 2779 sarreraz-bakiarekin erregistratu zen. Hona Nafarroako Gobernuak Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguakontseilariak ematen duen informazioa:

Ongi dakizunez, aurrekontu esparru berria Espainiako Konstituzioaren 135. artikulua erreformatu zenean sortu zen, 2011ko irailean.

Manu hori garatuz, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoa eman zen, aurrekontu-iraunkortasuna administrazio publiko guztien jarduna gidatzeko printzipio gisa ezartzen duena behin betiko, eta ez soilik aldi baterako, hazkunde ekonomikoa eta enplegu sorkuntza sustatzeko gako elementua delakoan.

Gero azaroaren 14ko 6/2013 Lege Organikoa onetsi zen, Erantzukizun Fiskaleko Agintaritza Independentea (AIReF) sortu zuena, Ekonomia eta Finantza Kontseiluak Espainiari berariaz emandako gomendioak eta beste xedapen hauek betetzeko: Ekonomia eta Diru Batasunaren Egonkortasunerako, Koordinaziorako eta Gobernurako Tratatuak, Bruselasen egina 2012ko martxoaren 2an; Kontseiluaren 2011/85/EB Zuzentaraua, 2011ko azaroaren 8koa, estatu kideen aurrekontu esparruei aplikatu beharreko betekizunei buruz-

koa, eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 473/2013 (EB) Erregelamendua, 2013ko maiatzaren 21ekoa, aurrekontu planen proiektuen jarraipena eta ebaluazioa egiteko eta euroguneko estatuak gehiegizko defizita zuzentzeko xedapen bateratuei buruzkoa.

Lege horren bidez, bada, autonomia eta independentzia funtzionala duen erakunde bat sortu da, eta horren helburua da, azken batean, administrazio publikoek aurrekontu egonkortasunaren printzipioa eraginkortasunez bete dezaten laguntzea, aurrekontu zikloaren eta zorpetze publikoaren etengabeko ebaluazioa eta aurreikuspen ekonomikoen azterketa direla medio.

Lege horrek adierazten du zer txosten egin behar dituen AIReFek: besteak beste, Nazioko Gobernuak egindako aurreikuspen ekonomikoei buruzko txostena, Egonkortasun eta Hazkunde Hitzarmenaren esparruan egindako Egonkortasun Programari buruzko txostena, aurrekontu-betetzearen, zor publikoaren eta gastu-arauaren analisiari buruzko urteroko txostena, eta ekonomia eta finantza planak onartu aurreko txostenak. Halaber, AIReFi aukera ematen dio 2/2012 Lege Organikoa aurreikusitako prebentzio-, zuzenketa- eta herztasatze-neurriak aktibatzea komeni den edo ez adierazteko.

2/2012 Lege Organikoa eta 6/2013 Lege Organikoa azken xedapenetan foru araubidearen aipamena egiten da, behar den bezala, eta adierazten da, Nafarroako Foru Komunitateari dagokionez, lege horietan xedatutakoa Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoan xedatutakoari jarraituz aplikatuko dela.

Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoari buruzko abenduaren 26ko 28/1990 Legeak 67.2.1) artikuluan hitzarmeneko Koordinazio Batzordeari esleitzen dio aurrekontu egonkortasunaren arloko lankidetzarako eta koordinaziorako konpromisoak adostea.

Azkenik, 2014ko martxoaren 28an AIReFen estatutu organikoa onetsi zen errege dekretu baten bidez.

Aurreko guztiarekin bat, AIReFek urriaren 15a baino lehen txostena argitaratu behar du, Estatuaren Aurrekontu Orokorren proiektua eta autonomia

erkidegoen nahiz toki korporazioen aurrekontuen ildo nagusiak egonkortasun-helburuei, zor-helburuei eta gastu-arauari zenbateraino egokitzen zaizkien adierazteko.

Hori betetzeko, aurten AReFek Estatuaren Aurrekontu Orokorren (EAO) proiektua eta autonomia erkidegoen nahiz toki korporazioen aurrekontuen ildo nagusiak aztertu ditu, ea bat datozen 2015erako ezarritako egonkortasun-helburuekin, zor-helburuekin eta gastu-arauarekin.

Kontabilitate nazionalean administrazio publikoak azpisektoreka sailkatzen dira, eta sailkapen horri jarraituz banatu dira txosteneko analisia eta ondorioak: Administrazio Zentrala, Gizarte Segurantzza, autonomia erkidegoak eta toki korporazioak.

Administrazio publikoen sektorearen balorazio orokorra, gomendio orokorrak eta azpisektore bakoitzerako gomendio berariazkoak biltzen ditu txostenak.

Azpisektore bakoitzerako, diru-sarreraren eta gastuen aurreikuspenen azterketa egiten du, abiapuntutzat harturik 2014ko likidazio-aurreikuspenak, 2015eko zenbatespenak eta kontabilitate nazionaleko neurri eta doikuntzen aurreikuspena bi ekitaldietarako. Aurrekontu-betetzea desbideratzeko arriskua duten eta, beraz, hurrengo urterako finkatutako helburuak beteko ote diren ziurtasunik ez duten atalak identifikatzen ditu.

Txostenak berak dioenez:

AReFen esku jarritako informazioak mugatzen du txostenaren norainokoa.

Administrazio Zentralari eta Gizarte Segurantzari dagokionez, Gorte Nagusietan aurkeztutako EAO proiektua jaso da, bai eta hainbat motatako informazio osagarriak ere.

Autonomia erkidegoen eta toki korporazioen kasuan, aurrekontuen ildo nagusiei buruzko informazioaren edukia oraingoz osatu gabea da.

Txostenean ondorio hauek ateratzen dira analisi horretatik:

1. Oso zorrotza da 2015erako finkatutako egonkortasun-helburua, hots, BPGd-aren % 4,2ko defizita administrazio publikoentzat, oro har. Aurrekontu-betetze hertsia eskatzen du helburu horrek, itxuraz aurrezpenerako dauden aukerak baliatu ahal izateko, beste atal batzuetan nabaritzen diren eskasiak berdintze aldera. Zenbait faktorearen ekarpenaren beharra dago helburua lortzeko:

- Abiapuntu ona izatea, alegia, 2014ko aurrekontu-betetzeak finkatutako egonkortasun-helburua lortzea: BPGd-aren % 5,5eko defizita.

- Diru-sarreraren jokalekura iristea. Horretarako, ekonomiaren suspertze ziklikoaren jokaleku makroekonomikoa berretsi egin behar da eta ez dira gauzatu behar hura behera etortzeko arrisku nagusiak.

- Gizarte Segurantzzen, zuzeneko likidazioaren sistema berria erabiliz eta gauzazko ordainsari osoak kotizazio-oinarrian aplikatuz, aurrekontuan jasota dagoena betetzea, eta langabezia-prestazioen gastuak gaur egun duen beheranzko joerari eustea.

- Estatuaren gastuen aurrekontuak, finantza-gastuetan, funtsean, itxuraz duen lasaitasunari esker, aurrekontuko gastuan aurrezpen eraginkorra sortzea, eta gastuaren hazkundera kontrolatzeko neurri berriek muga jartzea autonomia erkidegoen azpisektorean seguru asko 2015eko egonkortasun-helburuaren aldean gertatuko diren goranzko desbideratzeei.

2. Orain eskura dugun informazioaren arabera, ziur aski autonomia erkidegoen 2014ko itxierako defizita 2013koaren parekoa izanen da, 2014rako finkatutakoa baino askoz handiagoa. Desbideratze negatibo hori Estatuaren eta toki korporazioen azpisektoreen emaitzarekin orekatu behar litzateke, ematen baitu horiek badutela halako tarte bat. Gizarte Seguratasuneko funtsei 2014rako ezarritako aurrekontu-helburua eskura dagoela dirudi, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak (SEPE) izanen duen superabitaren eta Gizarte Seguratasunak izanen duen desbideratzearen arteko konpensazioa dela eta.

3. Autonomia erkidegoen azpisektorean dago 2015erako egonkortasun-helburuak ez betetzeko arrisku nagusia, 2014rako finkatutako BPGd-aren % 1etik BPGd-aren % 0,7ra jaitsi behar baita haien defizita.

Beraz, aurreko atalean aipatu den bezala, ziur aski autonomia erkidegoen defizitak gainezka egiten du aurten, eta horren ondorioz are zorrotzagoa izanen da autonomia erkidegoentzat 2015erako aurreikusitako ahalegina aurrekontu-konsolidazioari dagokionez.

4. AReFek zenbait gomendio ematen ditu:

- 2/2012 Lege Organikoan aurreikusitako mekanismoak erabiltzea balizko desbideratzeak goiz detektatzeko eta zuzentzeko.

- Aurrekontu-prozesua epe ertainean integratzea.

– Gardentasuna hobetzea, analisiaren norainokoa zabaldu ahal izateko, eta urteko aurrekontua Egonkortasun Programaren eta Aurrekontu Planaren esparruan aztertzea.

– Administrazio publikoen aurrekontu proiektuak aurkezteko egutegiak koordinatzea.

– Zorren murrizpen bidea berrikusteko lanei ekitea, halako moduan non hura erreferentzia sinesgarri eta zorrotza izanen baita, administrazio publikoei finantza-iraunkortasuna bermatzea ahalbidetuko diena.

– Administrazio publikoen sektorean eta azpi-sektoreetako bakoitzean dauden entitateen zerrenda argitaratzea, indarra duen Nazio eta Eskualde Kontuen Sistemaren (SEC 2010) arabera.

Autonomia erkidegoen 2015erako aurrekontuen ildo nagusiei buruzko zatian, txostenak hau dio, beste gauza batzuen artean:

Txostena egiteko igorri den informazioak ez ditu ematen eskatutako datu guztiak, eta horrek mugatu egin du azterketaren norainokoa: autonomia erkidegoen azpisektorea bere osoan harturik aztertu da ea ildo nagusiak aurrekontu-egonkortasunerako finkatutako helburua betetzeko egokiak diren ala ez.

Horregatik guztiagatik, honako honetara mugatu da txostena:

Aztertzea, azpisektore mailan, ea aurrekontu-egonkortasuneko helburua betetzeko egokiak ote diren autonomia erkidegoen 2015erako aurrekontuen ildo nagusiei buruzko informazio agregatuan jaso diren sarrera-aurreikuspenak eta gastu-hornidurak.

Egiaztatzea ildo horiek bat datozela 2014. urteko likidazioari buruz jakinarazitako aurreikuspenarekin, eta aurreikuspen hori sinesgarria dela, 2014ko lehen seihilekoko aurrekontu-betetzea ikusita.

Txostenak dio, halaber, 2014an eta 2015ean azpisektorerako aurreikusitako aurrekontu-jokalekuaren arabera, azken ekitaldi horretako diru-sarrera ez finantzarioen aurreikuspenek bilakaera positiboa izanen dutela, 2014ko itxierarako espero zen % 1aren aldean. Txostenean azaltzen denez, emandako informazioarekin ezin da baloratu zer aukera dagoen aurrekontu-jokalekuaren barruko beste diru-sarrera atal batzuk gauzatzeko, hala nola Nafarroako Foru Komunitateari bere foru araubidea dela-eta dagozkion diru-sarrerak (PFEZa, BEZa, zerga bereziak).

Diru-sarreraren eta gastuen bilakaerak BPGd nazionalaren % 0,79ko aurrekontu-defizita eragin du.

Lortutako saldoari kontabilitate nazionalaren doikuntza zenbatetsiak gehituko litzaizkioke. Horiek, emandako informazioaren arabera, bide emanen lukete, bai 2014rako aurreikuspenetan bai 2015ekoetan, ekitaldi bakoitzerako finkatutako egonkortasun-helburua lortzeko: BPGd nazionalaren % 1 eta % 0,7, hurrenez hurren.

2015eko aurrekontu-egonkortasuneko helburua ez betetzeko arriskuei, 2014ko egonkortasun-helburua betetzeko probabilitateari eta 2015erako jokalekuaren arrisku gehigarriei dagokienez.

Txostenak dioenez, 2015ean egonkortasun-helburua betetzeko probabilitatearen azterketak, planteatutako jokalekuan, ezinbestez hartu behar du abiapuntutzat 2014ko helburua betetzeko aukeraren balorazioa, 2015ean egin beharreko ahalegin fiskala aldatu eginen baita aurreko ekitaldiaren amaierako zifren arabera. 2014ko ez-betetzearen ondoriozko arriskuari 2015erako aurreikuspenen jokalekuan berean ager daitezkeen arriskuak gehitzen zaizkio.

Halaber, txostenak aipatzen du Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren 2014ko otsailaren 27ko epaia bete beharrak baldintzatu egin dezakeela 2014ko egonkortasun-helburua. Epaia horrek Erkidegoaren araudiaren kontraketat jo du Zebait Hidrokarburoren Txikizkako Salmenten gaineko Zerga.

Azkenik, autonomia erkidegoen 2014-2015 aldirako plan ekonomiko-finantzarioetan detektatutako arriskuei dagokienez, zehazki Nafarroari dagokienez, txostenak hau dio:

- Gaztela-Mantxako Autonomia Erkidegoan eta Nafarroako Foru Komunitatean hurrenez hurren erraz eta oso erraz gerta daiteke aurrekontu-egonkortasuneko 2014rako helburua betetzea, eta planeko neurriak aski izan litezke helburua beteko dela bermatzeko.

Txosten berean azaldutako betekizunak eta baldintzak betetzeari buruzko informazioa dela eta.

AIRFek dioenez, 2013rako Ekonomia eta Finantza Plana (EFP) eguneratzeko dokumentuak 2014ko ekitaldiari buruz dakartzan datuak kontuan izanik oso gertagarritzat jotzen du 2014ko aurrekontu-egonkortasuneko helburua (BPGd-aren % 1, txosten hau argitaratu den unean) betetzea.

Adierazten du, gainera, dokumentu horrek dakartzan neurriak aski izan daitezkeela 2013an

izandako desoreka zuzentzeko, eta badirudi gaur egun aurrekontu-betetzeari buruz eskura dauden datuek berretsi egiten dituztela aurrekontu-jokalekuan itxierari buruz jasotako aurreikuspenak.

Komunitateak 0,5 milioi euroko gastu-neurriak aurreikusten ditu 2014rako, langile-gastuei eraginen dietenak 2013ko eragiketa batzuen ondorioz ekitaldiko diru-sarrerak txikiagoak izan ziren, baina eragiketa horiek ez dira errepikatuko 2014an. Horrek eta itxierarako aurreikusitako ez-betetzeak justifikatu egiten dute beharrezko ahalegin fiskalaren lorpena. Ez-betetze horri dagokionez, AIREFek dio zehaztu egin behar dela zein diren ukitutako gastu-kontzeptuak eta horiek nola bideratuko diren aurrekontua kudeatzeko prozesuan, aplikazio osoa berma dadin.

Adierazten du, azkenik, aurreko guztia dela eta, kontuan izanik hartutako eta hartu beharreko neurriei buruz eman den informazioa eta Nafarroako Foru Komunitateak iragarri duen itxierako jokalekua, eta Komunitateak aurreikusten duen ez-

betetzeari buruz adierazitako salbuespenak salbu, oso gertagarria dela 2014rako finkatutako aurrekontu-egonkortasuneko helburua betetzea.

Adierazi beharra dago, hala ere, 2014ko ekainaren 26an, Konstituzio Auzitegiak Energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zerga arautzeko 24/2012 Foru Legeari buruz emandako epaiaren bitartez, foru lege hori konstituzio-kontraktat jo zela.

Epai horren arabera, eta Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoan xedatuta dagoenez, Komunitateak zerga bildu ahal izan dezan, zerga hitzartu egin behar da.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2014ko azaroaren 14an

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Kontseilaria, Lourdes Goicoechea Zubelzu

Galdera, jakiteko zergatik urriaren 15ean onetsi gabe dagoen 2015erako aurrekontuen aurreproiektua.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, jakiteko zergatik urriaren 15ean onetsi gabe dagoen 2015erako aurrekontuen aurreproiektua. Galdera argitaratu zen 2014ko urriaren 24ko 113. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko azaroaren 19an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera aurkeztu du, jakiteko zergatik aurreikusitako datan onetsi gabe dagoen 2015erako aurrekontuen aurreproiektua (8-14/PES-0193). Galdera hori 2014ko urriaren 15eko 2766 sarrera-zenbakiarekin erregistratu zen. Hona Nafarroako Gobernuak Ekonomia, Ogasun, Indus-

tria eta Enplegu Kontseilariak ematen duen informazioa:

Aurrekontuen aurreproiektua iragan urriaren 22an onetsi zen. Kontuan izan behar da iragan urriaren 3an Foru Komunitateko jarduera Ekonomikoa eta Enplegua Biziberritzeko Akordioa sinatu zutela Komunitateko eragile ekonomiko eta sozial nagusiek eta Nafarroako Gobernuak, urtebete lehenago ekonomia, lan eta gizarte arloko hitzarmena lantzeko sortutako Elkarrizketa Sozialaren Mahaiaren esparruan lortu zen adostasunaren emaitza gisa.

Akordioak ekonomia biziberritzeko jarduketa programa ezartzen du, neurri sorta bat aurreikusten duena, jarduera ekonomikoaren sustapena, industrializazioa eta enplegu-sorkuntza helburu. Aurreikusten du 12 jarduketa-lerrotan bildutako 41 neurri garatuko direla 2015etik 2017ra bitartean. Kopuru horretatik 161 milioi 2015ean jarriko lirateke, 182 milioi 2016an eta gainerako 202 milioiak 2017an.

Behin akordio hori sinatutakoan, 2015erako aurreikusitako neurriak hurrengo urterako aurrekontuen aurreproiektuan sartu behar izan ziren.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2014ko azaroaren 14an

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

Galdera, jakiteko ea zer jarduketa egin diren mozio bat betetze aldera, Nafarroako Gobernua premiatzen duena Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin basobideen arauketa homogeneo bat adostu dezan.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Eloy Villanueva Cruz jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, jakiteko ea zer jarduketa egin diren mozio bat betetze aldera, Nafarroako Gobernua premiatzen duena Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin basobideen arauketa homogeneo bat adostu dezan. Galdera argitaratu zen 2014ko urriaren 30eko 116. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko azaroaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularrari atxikitako foru parlamentari Eloy Villanueva Cruz jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du basobideen erabileraren arauketari buruz (8-14-/PES-00197). Hau erantzun dio Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazio Kontseilariak:

Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioko Batzorde Betearazleak, 2014ko martxoaren 20an egindako bilkuran, Monteagudoko alkate eta NUKFko burua eta Ultzamako alkatea izendatu zituen lantalde bat osatzeko, Nafarroako basobide edo herri bideen erabilera modu homogeneoan arautze aldera.

Halaber, Ingurumenaren eta Uraren Zuzendaritzak lantaldeko kide izendatu zituen Mendi Zerbitzuko zuzendaria eta Oihan Kudeaketako Ataleko burua.

Lantaldea eratutakoan, Nafarroako Foru Komunitateak landa bideen arauketaren arloan duen araudia aztertzeari ekin zitzaion.

Ildo horretan, natura ingurunekeo jarduera motordunak, bai antolatuak bai askeak, otsailaren 14ko 36/1994 Foru Dekretuaren bidez arautzen dira, halako moduan non jarduera horiek natura ingurunean izan ditzaketen eraginak aldeztetik aztertzen baitira, behar diren baimenak eman baino lehen.

Araudiaren azterketaren lehenengo fase horren ondoren, irailaren 10ean lantaldeak bilera egin zuen ondorioak ezartzeko eta egin beharreko urratsak zehazteko.

- NUKFk jakinarazi du basobideetako zirkulazioa arautzeko toki eskumena toki entitateei dago kiela eta eskumen hori ezin dela ezbaian jarri.

- Lantaldeko kide guztiek adierazi dute aniztasun handia dagoela, toki entitateek landa bide eta baso pistei buruz ematen dituzten arauetara dagokienez.

- Horregatik, toki entitateek arlo horretan dituzten eskumenak deusetan ere galarazi gabe, honako hau erabaki da:

1. Ez da beharrezkotzat jotzen goian aipatutako foru dekretua aldatzea.

2. Nafarroako Oihan Ondarea Babestu eta Garatzeari buruzko abenduaren 31ko 13/1990 Foru Legearen 6. artikulua honako hau dio hitzez hitz: *“Foru lege honetan araututako gaietan eragin zuzena duen edozein foru edo toki araubideke oihan administrazioaren txosten lotesle eta aginduzkoa beharko du aurretik”*. Horrekin bat etorritik, Ingurumenaren eta Uraren Zuzendaritza Nagusiak gutuna bidaliko die gaiarekin zerikusia duten era-

gileei (NUKF, Toki Administraziozuzendaritza nagusiak), toki entitateek gogoan izan dezaten txosten lotesle eta aginduzko horren beharra. Jada ekintza hori burutzen ari da; prozedura bat ezarri da zeinaren bidez txosten hori egingen baita aurrean xedatutakoari eragin diezaioketen arauak detektatzen direnean toki ordenantzetan.

Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio Departamentuaren eskumenen eremuan eta aipatutako txostenak emanez homogeneotasun handiagoa lor daiteke basobideen arauketan, baita beste kontu batzuetan ere.

3. NUKFk adibideak bilduko ditu, toki entitateek basobideen erabileragatik ezarritako kanonei dagokienez. Lan hori jada eginda dago, eta aurreikusita dago lantaldeak beste bilera bat egitea gomendioak ezartzeko.

4. Urtea bukatu baino lehen sarrera publikoa onartuko da gaur egun sarrera murriztua duten NLISeko basobideen geruzetako batean (zehazki, bide nagusien geruzan).

5. Nolanahi ere, "lurralde" informazio horren guztiaren gaintik, goragoko arauak eman daitezke natura ingurunearen babes orokorraren itzalpean; esate baterako, suteen prebentzioak bide horien erabilera motorduna mugatzen eta arautzen du aldi baterako.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2014ko azaroaren 19an

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administraziozuzendaritza: José Javier Esparza Abaurrea

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Gobernuak gizarteratze-errenta kontrolatzeko eta iruzurraren aurka borrokatzeko duen neurri-planari buruzko txostena, Nafarroako Arartekoaren erakundeak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urtarrilaren 7an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik Nafarroako Arartekoaren erakundeak emandako txostena, Nafarroako Gobernuak gizarteratze-errenta kontrolatzeko eta iruzurraren aurka borrokatzeko duen neurri-planari buruzkoa, ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Erabakia Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Nafarroako Gobernuak gizarteratze-errenta kontrolatzeko eta iruzurraren aurka borrokatzeko duen neurri-planari buruzko txostena, Nafarroako Arartekoaren erakundeak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera. Txostenaren arrazoia eta xedea (17. or.).
- II. Metodologia (19. or.).
 - 2.1. Gizarte Politiketako Departamentuari egindako informazio eskaria (19. or.).
 - 2.2. Gizarte Politiketako Departamentuak emandako informazioa eta dokumentazioa (20. or.).
 - 2.3. Behin-behineko txostena Gizarte Politiketako Departamentuari helaraztea, alegazioak aurkezteko (24. or.).

III. Eskatutako txostena dela-eta emandako informazioari buruzko gogoetak (24. or.).

3.1. Nafarroako Gobernuak gizarteratze-errenta kontrolatzeko eta iruzurraren aurka borrokatzeko duen neurri-plana (24. or.).

3.2. Gizarte Politiketako Departamentuaren ikuskatze-jardueraren gainbegiratzea, gizarteratze-errentari dagokionean (25. or.).

IV. Ondorioak (27. or.).

I. SARRERA. TXOSTENAREN ARRAZOIA ETA XEDEA.

2014ko irailaren 1ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak honako erabakia hartu zuen, Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bikendi Barea Aiestaran jaunak eskatuta:

“Nafarroako Arartekoari eskatzea txosten bat egin dezan gizarteratze-errenta kontrolatzeko eta iruzurraren aurka borrokatzeko Nafarroako Gobernuaren neurri-planari buruz”.

Eledunen Batzarraren erabakia 2014ko irailaren 4an igorri zitzaion Nafarroako Arartekoaren erakundeari, eta haren erregistroan alta eman zitzaion. Erabaki horri gehitu zitzaion aipatutako foru parlamentariak erakunde honi egindako eskariaren idazkia, non eskariaren aurrekariak eta Bildu Nafarroa parlamentu-taldearen gogoeta batzuk ageri baitira. Idazki horrek 2014ko uztailaren 22ko data dauka.

Aurrekariak honako ardatzak zituzten:

a) Gizarte Politiketako kontseilariak 2014ko apirilaren 23an egindako aurkezpen publikoa esanez, “exekutiboak areagotu nahi duela gizarte errenta jasotzen dutenek beren betebeharrak betetzeari buruzko ikuskatzea, bai eta iruzurraren kontrolatzeko neurriak, ezkutuko ekonomiaren

kontrako borroka edo fikziozko ezkontideen bereizketen gaineko zaintza ere. Eta Nafarroako Gobernuaren webgunean aurkezpenaren egunean jarritako prentsa-oharraren lerrokada batzuk biltzen ditu.

b) Gizarte Politiketako Departamentuak, 2014ko apirilaren 23an bertan, "Nafarroako Gobernuaren gizarteratze-errenta kontrolatzeko eta iruzurraren aurka borrokatzeko neurri-plana" delakoari emandako publizitatea.

c) Gizarte Politiketako kontseilariak, 2014ko maiatzaren 21ean, Nafarroako Parlamentuan egindako agerraldia, "Nafarroako Gobernuaren gizarteratze-errenta kontrolatzeko eta iruzurraren aurka borrokatzeko neurri-plana" azaltzeko. Agerraldi horretan, kontseilariak adierazi zuen ez zitzaiola egokia iruditzen "iruzur" terminoa, eta "Nafarroako Gobernuari ez dagokiola kalifikazio hori egitea; hori dela eta, 2013an gizarteratze-errenta erretiratze izan diren kasuetan, ez dugu inolaz ere eta inoiz ere adieraziko halako pertsonak iruzur egoeran daudenik, baizik eta ez betetze batzuk aurkitu direla legeak gizarteratze-errenta eskuratzeko ezarritako baldintzetan".

Bildu Nafarroa parlamentu-taldearen gogoetak, Nafarroako Gobernuaren gizarteratze errenta kontrolatzeko eta iruzurraren aurka borrokatzeko neurri-planari buruzkoak, hiru ziren; honakoak, hitzez hitz:

1. Edozein iruzur-jardueraren aurkako borroka eta baliabide publikoen gaineko kontrol neurriek administrazio publiko guztien betebeharrak izan behar dute.

2. Beren egoera sozio-ekonomiko edo/eta egoera desegituratua direla-eta ahuldade bereziko egoeran dauden populazio-sektoreen kasuan, administrazioen jarduketek egokiak, proportzionatuak eta bereziki arretatsuak izan behar dute, jasotako errenten gaineko kontroleko edo iruzurraren aurkako jarduketan ondorioz ikertzen diren edo murrizketak nahiz gizarteratze-errentaren erretiratzea aplikatzen zaizkien pertsona bakarreko unitateen edo familien babesgabatasuna areagotu ez dadin.

3. Nafarroako Gobernuak Gizarte Politiketako Departamentuak, 2014ko apirilaren 23an, gizarteratze-errenta kontrolatzeko eta iruzurraren aurka borrokatzeko neurri-planean iragarritako neurriek, kasu batzuetan, proportzio falta, anbigutasuna, babesgabatasuna, aldebakartasuna eta deskoordinazioa eragin ditzakete, eta berez zailak diren egoerak larriagotu ditzakete, pertsonen eta familia-unitateen egoera larria den tesuinguru batean.

Barea Aiestaran jaunaren idazkiaren amaieran, eskari bat egiten zen Nafarroako Arartekoak txosten bat egin dezan Nafarroako Gobernuaren gizarteratze-errenta kontrolatzeko eta iruzurraren aurka borrokatzeko neurri-planari buruz, hain zuzen Nafarroako Gobernuak 2014ko apirilaren 23an iragarritakoari buruz".

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarraren eskaera aztertuta, jo zen bat zetorrela Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeko 16.d) artikuluan xedatutakoarekin.. Arau horren arabera, Arartekoak txostenak egin ditzake bere eskumenen esparruan, zeina baita Konstituzioak eta Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoak babestutako eskubide eta askatasunak defendatzea eta hobeki babestea.

Eskaria herritarrek aipatutako gizarteratze-errenta jasotzeari buruzkoa da. Gizarteratze-errenta prestazio ekonomiko bat da, publikoa, aldizkakoa, osagarria, beste prestazio batzuen subsidiarioa, eta, oro har, bahiezina. Hura lortzeko, eskubide subjektibo bermatu bat badago, baldin eta betetzen badira urtarrilaren 23ko 1/2012 Foru Legean ezarritako baldintzak, eta kasu bada, haiei eusten bazaie.

Foru lege honen 1.1 artikulua xedatzen du helburu duela aldizkako prestazio ekonomiko baterako eskubidea arautzea, bai eta gizarteratze-neurriak eta laneratzeko lagungarriak diren prozesu eta programak ezartzea ere, pertsonen eta familia-unitateen bazterketa saihestu, bazterketa egoerak aldatu eta gizarteratzea eta laneratzea sustatze aldera".

Gizarteratze-errenta herritarren eskubide bat denez gizarte politikekin eta gizarte ongizatearekin lotutakoa, haren kontrolaren gaineko txosten bat egitea guztiz sartzen da Nafarroako administrazio publikoen jarduera ikuskatzeko Arartekoak dauzkan eskumenen barruan, Konstituzioak eta Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoak babestutako eskubide eta libertateak defendatzearen eta babestearen eginkizuna dela eta, Foru Komunitatearen eskumenen eremuan (Foruaren Hobekuntzako 18.ter 1. artikulua).

Edukiari dagokionez, txostenak, sarrera honen ondotik, hiru atal dauzka: a) lanketarako jarraitutako metodologia, administrazio publiko eskudunari eskatutako informazioa eta administrazio horrek emandako informazioa; b) Gizarte Politiketako Departamentuak emandako informazioari buruz egiten diren gogoetak eta departamentu horrek gizarteratze-errenta dela-eta egiten duen ikuskatze jardueraren gainbegiratzea; eta c) ateratzen diren ondorioak.

II. METODOLOGIA.

2.1. Gizarte Politiketako Departamentuari egindako informazio eskaria.

Nafarroako Parlamentuaren erabakia betetzeko eta, horrenbestez, Nafarroako Parlamentuak eskatutako txostena egiteko, erakunde honek, 2014ko irailaren 5ean, Gizarte Politiketako kontseilariari eskatu zion 2014ko urriaren 16a baino lehen informazioa zezan planteatutako gaiei buruz.

Zehazki, Nafarroako Arartekoak egokitzen jo zuen Gizarte Politiketako kontseilariari eskatzea honako informazioa eman diezaiola Eledunen Batzarraren erabakian aipatutako gizarteratze-errenta kontrolatzeko eta iruzurraren aurka borrokatzeko Nafarroako Gobernuaren neurri-planari buruz:

a) *Gizarteratze-errenta kontrolatzeko eta iruzurraren aurka borrokatzeko Nafarroako Gobernuaren neurri-planaren kopia bat, non haren eduki osoa jasoko baita.*

b) *Plan horren onespenera buruzko erabakien edo foru aginduaren kopia bat, plan hori argitaratu den Nafarroako Aldizkari Ofizialaren aipamenarekin, kasua bada.*

c) *Gizarte Politiketako Departamentuan egon eta planean aipatzen diren txosten tekniko eta juridikoen kopia bat.*

d) *Plan hori egiteko eta onesteko jarraitutako espediente administratiboaren kopia bat.*

e) *Plana egiteko eta haren helburuetarako ezarritako irizpide orokorrak, halakorik badago.*

f) *Plan hau betetzeko edo haren jarraipena egiteko edo haren aplikazioa dela-eta eratu diren batzorde edo lantaldeen akordio eta aktak (Garaipenari Arreta Emateko eta Pertsonak Gizarteratzeko Zerbitzuko eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako lantaldeak, Gizarte Zerbitzuak Koordinatzeko Batzordea).*

Halaber, gizarteratze-errenta kontrolatzeko eta iruzurraren aurka borrokatzeko neurriak ebaluatu ahal izateko, errenta hori lortu eta erabiltzeari dagokionez:

– Gizarteratze-errenta kontrolatzeko eta iruzurraren aurka borrokatzeko 2013an eta 2014an egindako kontrol eta ikuskatze kopurua.

– Gizarte Politiketako Departamentuak irekitako espediente administratibo osoen kopia bat: 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera kontrol, ikerketa, ikuskapen eta abarrekoak egiteko espedienteak, gizarteratze-errenta kontrolatzeko eta iruzurraren

aurka borrokatzeko neurri-planean zehazten diren arazoietatik edozein dela-eta abiatutakoak.

– 2013an eta 2014an gizarteratze-errentaren kontrolarekin eta iruzurraren aurka borrokatzearekin lotuta eman diren ebazpenen kopurua.

– Gizarte Politiketako Departamentuak irekitako espediente administratibo osoen kopia bat; hain zuzen, 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera errenta erretiratze, murrizte, ukatzeko, atzera botatzeko, berrikusteko, gutxitzeko itzultzeko edo antzekoetarako ebazpenak eman direneko espedienteak, gizarteratze-errenta kontrolatzeko eta iruzurraren aurka borrokatzeko neurri-planean zehazten diren arazoietatik edozein dela-eta abiatutakoak.

Horretarako, garrantzitsutzat jotzen dira plan horretan gizarteratze-errenta kontrolatu edo erretiratze jokabidetzat jasota ageri diren arazoak, eta ez 2014ko apirillean plana onetsi izatearen egitate administratiboa.

– Gizarte Politiketako Departamentuak ezarri dituen berme, mekanismo edo neurri berariazkoak, gizarteratze-errentaren ematea kontrolatzeko eta iruzurraren aurka jotzeko hartutako neurrien aplikazioa egokia, proportzionatua eta bereziki arretatsua dela segurtatzekoak, ikertzen diren edo murrizketak edo erretiratzea aplikatzen zaizkien pertsona bakarrek unitateek edo familia-unitateek daukaten babesgabetasuna ez areagotzeari begira, eta, halaber, saihesteari begira aplikazio horrek eragin ditzan proportziogabetasuna, anbigutasuna, babesgabetasuna, aldebakartasuna, deskoordinazioa edo egoeren larritzea, zeren eta egoera horiek berez zailak baitira pertsonen eta familia-unitateen egoera larrien kasuetan.

– Behar litekeen beste edozein argitasun.

Informazioa eskatzeko idazki horretan, Nafarroako Arartekoak gogorarazi zuen “interesdunen datu pertsonalak ezagututa –Nafarroako Arartekoaren erakundeak legez haietarako sarbidea dauka–, erakunde honek erreserba guztiz konfidentzial bat egingen du; izan ere, gure aldetik honako konpromisoa hartzen dugu: datu horiek ez dira inon ere azalduko Departamentuarentzat egiten den txostenean, halako moduz non datuak ezagutzen diren pertsonen identifikazioa gordeko baita”.

Emandako epean eskatu genuen informazioa eskuratu ez genuenez, 2014ko urriaren 23an eskari hori berretsi zen, eta eskatu zen hamabost egun baliadun epean eskatutako informazioa emateko.

2.2. Gizarte Politiketako Departamentuak emandako informazioa eta dokumentazioa.

2014ko azaroaren 14an, Nafarroako Arartekoaren erakundeak Gizarte Politiketako kontseilariaren txosten bat jaso zuen, honako hamahiru dokumentu hauekin batera:

1. Gizarteratze-errentaren kudeaketari buruzko eskuliburua (2014ko uztaileko 2.3 bertsioa).

2. 2014ko gizarteratze-errentaren onuradunen ikuskatze-prozesuko fluxu-eskema (fluxugrama); gizarteratze-errenten prozesuaren onespena, 2014ko ekainaren 11koa.

3. Ikuskatze-prozesuaren fitxa (prozesuaren onespena 2014ko ekainaren 11koa da).

4. Garapenari Arreta Emateko eta Pertsonak Gizarteratzeko Zerbitzuko zuzendariaren idazki bat, 2014ko ekainaren 30ekoa, non jakitera ematen baita Plangintza, Kalitate eta Ikuskatze Zerbitzuaren ofizioa, 2014rako onetsitako Gizarte Politikaren arloko Ikuskatze Planari dagokiona (apirilaren 25eko 262/2014 Foru Agindua).

5. Plangintza, Kalitate eta Ikuskatze Zerbitzuko zuzendariaren 2014ko azaroaren 14ko idazki bat, zeina hirugarren pertsona bati zuzendutako gutunaren eredu gisa erabiltzen baita. Bertan, 2014an onetsitako ikuskatze-plana aipatzen da, eta gizarteratze-errentaren jasotzaileen artean lagin aleatorio bategin dela, eta idazkiaren hartzaileari ikuskatze bat eginen zaiola, fede emateko moduan justifika ditzan jasotzen aritu den gizarteratze-errentaren baldintzak.

6. Gizarte Politiketako kontseilariaren apirilaren 25eko 262/2014 Foru Agindua, Nafarroako gizarte politikaren arloko ikuskatze-plana onesten duena 2014. urterako (2014ko ekainaren 5eko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu da).

7. Gizarte Politiketako kontseilariaren otsailaren 28ko 199/2013 Foru Agindua, Nafarroako gizarte politikaren arloko ikuskatze-plana onesten duena 2013. urterako (2013ko apirilaren 9ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu da).

8. 1/2012 Foru Legea, urtarrilaren 23koa, gizarteratze-errenta arautzen duena

9. Oinarrizko errenta arautzen duen apirilaren 19ko 120/1999 Foru Dekretua.

10. Eskola-absentismoko kasuetan jarduteko protokoloa, 2014ko otsailekoa. Protokolo hori Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuko Absentismoaren eta Eskola-uztearen aurkako Batzordeak landu du.

11. Gizarte Politiketako kontseilariaren espediente administratiboa, Nafarroako gizarte politikaren arloko ikuskatze-plana onesten duena 2013. urterako. Espediente horrek foru agindu bat eta Plangintza, Kalitate eta Ikuskatze Zerbitzuaren proposamen-txosten bat dauzka.

12. Oinarrizko Laguntzako Koordinazio Batzordeak 2014ko apirilaren 30ean egindako bilaren akta bat, eta haren eranskin gisa, Gizarte Politiketako kontseilariaren foru aginduaren proiektu bat, zeinak arautzen baitu Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren Gizarte Zerbitzuen Oinarrizko Laguntzako Koordinazio Batzordea. Akta horretan, ez da inongo punturik ageri gizarteratze-errentaren kontrolari buruz, errenta hori jasotzearen arloko iruzurraren aurkako borrokari buruz edo gai horien gaineko neurrien berriazko plan baten lanketari buruz.

13. "Gizarteratze-errentaren arloko ez-betetzeari" izenburua daraman orria, 2014ko urriaren 15eko data duena, non datu batzuk ageri baitira, 2013an eta 2014an ez-betetzeari bat tarteko ezeztitako espedienteen kopuruarekin eta 2013an eta 2014an ez-betetzeari bat tarteko baja eman zaien espedienteen kopuruarekin, bai eta ez-betetze horien arrazoiekin ere.

Gizarte Politiketako kontseilariaren txostenean, honakoa azaltzen da:

"Erakunde horrek dokumentazioa eta zenbait informazio igortzeko egindako eskabideari dagokionez, Nafarroako Parlamentuko lehendakariak egindako eskaerari erantzuna eman ahal izateko –Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarraren irailaren 1eko erabakiari jarraituz, Nafarroako Arartekoari eskatzen zaio txosten bat egin dezan gizarteratze-errenta kontrolatzeko eta iruzurraren aurka borrokatzeko Nafarroako Gobernuaren neurri-planari buruz (i14-07 espediente)–, bidezkoa da honako argibideak ematea, eskabideko alderdi bakoitzari dagokionez:

a) *Gizarteratze-errenta kontrolatzeko eta iruzurraren aurka borrokatzeko Nafarroako Gobernuaren neurri-planaren kopia bat, non haren eduki osoa jasoko baita.*

Gizarteratze-errenta kontrolatzeko neurri-plana Nafarroako Gobernuko Gizarte Politiketako Departamentuko Gizarte Zerbitzuen ikuskatze planaren barruan dago.

Gizarteratze-errenta kontrolatzeko Nafarroako Gobernuaren neurri-plana ez da berriazko plan bat, baizik eta Departamentuaren jarduketa-multzorearen atal bat. Jarduketa horiek orientatuta daude bermatzera baliabide publikoak eskubidea duten pertsonengana eta familia-unitateengana heltzen direla.

Gizarteratze-errentaren prestazioen kontrol-, berriak eta ikuskapen-jarduketak horiek guztiak bi zerbitzuek egiten dituzte, eta bi une desberdinetan:

1.- Garapenari Arreta Emateko eta Pertsonak Gizarteratzeko Zerbitzua: Kontrol-jarduketak prestazioa eskatzeko espedienteak izapidetzen den bitartean egiten dira, eta honako honetan dautza: 1/2012 Foru Legean eta 120/1999 Foru Dekretuan araututa dagoen gizarteratze-errenta emateko lege ezarririk prozesuari lotutako kudeaketa administratiboari dagozkion egiaztapen eta azterketak. Aipatutako arauetan jasota daude bai prestazioa eskuratzeko eskubiderako kasuak, bai hura emateko baldintzak ere. Jarduketak horiek honakoak dira: batetik, eman aurretiko egiaztapen-lanak; bestetik, jasotzeko baldintzak betetzeari buruzko kontrol-lanak.

Gizarteratze-errenta eskatzeko espedienteak izapidetzeko prozesuko fitxa erantsi dugu. (1. dokumentua)

Errenta eskuratu ahal izateko baldintzen betearekin lotutako ohiko lanei dagokienez, horiek beste entitate eta erakunde batzuekiko lankidetzan egiten dira: espedienteetan jasotako dokumentazioa aztertzen da; argitasunak eskatzen zaizkie, kasua bada, oinarritzko gizarte zerbitzuari edo zuzenean interesdunari; informazio osagarria eskatzen da informazioa falta den kasuetan; dokumentazioa eskatzen zaie Zerga Ogasunari, Gobernuaren Ordezkaritzari –Atzeritarrak–, Nafarroako Enplegu Zerbitzuari eta abarrei, eta beharrezkoa denean kasuko helbidera bisita egiten da, oinarritzko gizarte zerbitzuetako gizarte langileek ere esku hartuta.

Espedienteak kontrolatu eta aztertzeko lanei dagokienez, gizarteratze-errenta azkentzen da baldintza horien ez-betetzeak aurkitzen direnean.

Gizarteratze-errentak azkentzeko kasuen kopurua oso txikia da, zeren eta hura emateko prozesuan eskuratzeko baldintzak betetzeari buruzko egiaztapena exhaustiboa baita, eta, horrenbestez, gutxitan gertatzen baita geroztik egiaztatzea ez-betetzerekin bat dagoela, eta horren ondorioz prestazioa kendu beharra dagoela.

Prozesuan zehar zehatu beharreko egitateren bat gertatzekotan, kasuko zehapen-espedienteak abiatuko da. Espediente horien izapideetan, ahal den guztian bermatzen dira interesdunen eskubideak eta haien defentsa, bereziki, interesdunarentzako jakinarazpenari dagokionez (lehenengo, posta ziurtatu bitartez; itzultzen bada, NAOn argitaratzen den eta, halaber, kasuko udaletxeko iragarki oholean jartzen den ediktu baten bidez).

2.- Plangintza, Kalitate eta Ikuskapen Zerbitzua. Gizarte Politiketako Departamentuaren oinarritzko egitura ezartzen duen uztailaren 25eko 73/2012 Foru Dekretuak Plangintza, Kalitate eta Ikuskatze Zerbitzuaren eginkizunak ezartzen ditu. Eginkizun horiek Gizarte Politiketako kontseilariak urtero foru agindu bidez onesten duen ikuskatze-planaren bitartez zehazten dira.

Ikuskatze-plan guztiek eskatzen dute zehaztu edo finka dadin zein alderdi ikuskatuko diren onetsitako ikuskatze-planaren erreferentziako urtean zehar, bai zerbitzuen prestazioan, bai prestazio ekonomikoetan.

Bat baino gehiago dira plangintza hori egitura-zen duten elementuak; honakoak, esate baterako: eskura dauden baliabideak; azken urteetan ikuskatu ez diren zerbitzu edo prestazioen ikuskatzea; salaketek zer eragin duten bai zerbitzu jakin batzuetan, bai aurreko ekitaldietan aurkeztu diren gai batzuetan, zerbitzuak ematen ari diren modua dela-eta behin eta berriz ematen diren edo gertatzen hasi diren alderdi edo kasuistikak adieraz ditzaketelako.

Sistemaren osotasunean eragina duten zerbitzu edo prestazio edo alderdi zehatzen egoera orokorrari buruzko ezagutza bat eskuratzeko beharra –horrek, izan ere, gaiaren arabera ikuskatzeak ekartzen ditu– ikuskatze-plangintzan eragiten duen beste alderdi bat da.

Ez da ikuskatze-plan berriazkorik egiten zerbitzu jakinetarako, zerbitzuen multzo baterako edo prestazio ekonomiko jakin batzuetarako –esate baterako, gizarteratze-errenta–.

Gizarteratze-errentari dagokionez, oinarritzko ikuskatze-ildoak eutsi zaie azken ekitaldietako urteko ikuskatze planen barruan (prestazio ekonomikoetatik handiena baita).

Nafarroako Gobernuak Gizarte Politiketako Departamentuaren 2014rako ikuskatze-planak honakoa jasotzen du jarduketako-programa gisa:

“VII.1. programa.

Helburua: Laguntza ekonomikoak jasotzeko exijitzen diren baldintzen betetzeari buruzko egiaztapena.

– Jarduketaren edukia:

Ikuskapen zerbitzuak egiaztatuko du –egokien jotzen dituen bitartekoak erabiliz– modu frogagarrian betetzen direla laguntza ekonomikoak jasotzeko ezarririk dauden betekizunak.

– Jarduteko eremua.

Jasotako laguntza ekonomikoen hartzaileak.”

2014ko ikuskatze-protokoloa honako dokumentu hauek (erantsitakoak) osatzen dute:

Ikuskatze-prozesuaren fluxugrama (2. dokumentua)

Prozesuari buruzko fitxa, 2014-06-11n onetsia (3. dokumentua)

Ikuskatzeari buruzko ofizioa (4. dokumentua)

Jakinarazpenaren gutuna (5. dokumentua)

Protokoloak dioen bezala, gizarteratze-errenta jasotzen dutenen lagin aleatorio bat hartu zen, zein espediente ikuskatuko ziren hautatzeko.

Jarduketa plana, horrenbestez, honakoek osatzen dute: gizarteratze-errenta kudeatzeko ardura duen atalak, organo eskudunekin datuak trukatu ondoren, espedienteen gainean egindako azterketek, eta berezko ikuskatze jarduketa arruntak.

b) Plan horren onespenerari buruzko erabakia-
ren edo foru aginduaren kopia bat, plan hori argitaratu den Nafarroako Aldizkari Ofizialaren aipamenarekin, kasua bada.

1. Ikuskatze-prozedura.

Honakoak erantsi ditugu: Gizarte Politiketako kontseilariaren apirilaren 25eko 262/2014 Foru Agindua, Nafarroako gizarte politikaren arloko ikuskatze-plana onesten duena 2014. urterako. 2014ko ekainaren 5eko 109. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua (6. dokumentua).

Gizarte Politiketako kontseilariaren otsailaren 28ko 199/2013 Foru Agindua, Nafarroako gizarte politikaren arloko ikuskatze-plana onesten duena 2013. urterako. 2013ko apirilaren 9ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu da (7. dokumentua).

2. Gizarteratze-errenta azkentzeko prozedura.

Honakoak erantsi ditugu: - 1/2012 Foru Legea, urtarrilaren 23koa, gizarteratze-errenta arautzen duena 2012ko otsailaren 3ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua eta azaroaren 26ko 36/2013 Foru Aginduaz aldatua (2013ko abenduaren 4ko NAO) (8. dokumentua).

- Oinarrizko errenta arautzen duen apirilaren 19ko 120/1999 Foru Dekretua. 1999ko maiatzaren 3ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua; akats zuzenketa 1999ko uztailaren 30eko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (9. dokumentua).

- Eskolako absentismo kasuetan jarduketa-protokoloaren kopia (10. dokumentua).

c) Gizarte Politiketako Departamentuan egon eta planean aipatzen diren txosten tekniko eta juri-

dikoen eta haiek egin eta onesteko jarraitutako espediente administratiboaren kopia bat.

d) Plan hori egiteko eta onesteko jarraitutako espediente administratiboaren kopia bat.

Nafarroako Gizarte Politikaren arloko 2013rako ikuskapen planaren onespenerako jarraitutako espediente administratiboaren kopia erantsi dugu. (11. dokumentua).

e) Plana egiteko eta haren helburuetarako ezarritako irizpide orokorrak, halakorik bada.

Dokumentu honen a) letran adierazi bezala, bat baino gehiago dira ikuskatze-lanaren plangintza determinatzen duten elementuak, eta, horrenbestez, ez dago zertan haiek errepikatu.

Nafarroako Gobernuaren Gizarte Politiketako Departamentuko gizarte zerbitzuen ikuskapen planaren helburuei dagokienez, helburu du egiaztatzea laguntza ekonomikoak jasotzeko exijitzen diren baldintzak betetzen direla.

Hartara, Ikuskapen Zerbitzuak egiaztatuko du, egokien jotzen dituen bitartekoak erabiliz, modu frogagarrian betetzen direla laguntza ekonomikoak jasotzeko ezarrita dauden betekizunak.

Garapenari Arreta Emateko eta Pertsonak Gizarteratzeko Zerbitzuak egindako kontrolari eta berrikuspenari dagokionez, jarduteko irizpide nagusia da legezketasunaren printzipioa errespetatzea eta gizarteratze-errenta arautzen duen legean ezarritakoa betetzea. Zehazkiago, prestazioa eskuratzeko baldintzei, onuradunen betebeharreri eta prestaziorako eskubidea azkentzeari dagokienez.

Helburua hau da: bermatzea baliabide publikoak eskubidea duten pertsonengana eta familia-unitateengana heltzen direla.

f) Plan hau betetzeko edo haren jarraipena egiteko edo haren aplikazioa dela-eta eratu diren batzorde edo lantaldeen akordio eta aktak (Garapenari Arreta Emateko eta Pertsonak Gizarteratzeko Zerbitzuko eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako lantaldeak, Gizarte Zerbitzuak Koordinatzeko Batzordea).

Ez da inongo berariazko batzorde edo lantalderik eratu.

Aipatu bezala, gizarteratze-errentaren kontrola ez da berariazko plan bat, baizik eta Departamentuak arloari buruz egiten dituen jarduketan multzo bat.

Gaiari buruzko informazioa Gizarte Zerbitzuen Koordinazio Batzordearen 2014ko apirilaren 30eko bileran eman zen. Batzordearen akta erantsi da.

Hartan, izan ere, gizarteratze errenta emateko prozesuari buruzko alderdi praktikoko batzuk landu ziren. (12. dokumentua).

Halaber, gizarteratze-errenta kontrolatzeko eta iruzurraren aurka borrokatzeko neurriak ebaluatu ahal izateko, errenta hori lortu eta erabiltzeari dagokionez, honako informazio gehigarria eskatu da:

– **Gizarteratze-errenta kontrolatzeko eta iruzurraren aurka borrokatzeko 2013an eta 2014an egindako kontrol eta ikuskatze kopurua.**

2013. urtea

Egindako kontrol kopurua (izapidetutako espedienteak): 16.734 espediente.

Ikuskapen Zerbitzuak aztertutako espediente kopurua: 247 espediente.

2014. urtea (urriaren 15ean)

Egindako kontrol kopurua (izapidetutako espedienteak): 13.533 espediente.

Ikuskapen Zerbitzuak aztertutako espediente kopurua: 427 espediente.

– **Gizarte Politiketako Departamentuak irekitako espediente administratibo osoen kopia bat; hain zuzen, 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera kontrol, ikerketa, ikuskapen eta abarreko bat egiteko espedienteek dagozkien espedienteak, gizarteratze-errenta kontrolatzeko eta iruzurraren aurka borrokatzeko neurri-planean zehazten diren arrazoietatik edozein dela-eta abiatutakoak.**

Kontrolleko eta ikerketako ekintzek, aurreko puntuetan jada azaldu dugun bezala, gizarteratze-errenta izapidetzeko espediente guztiak hartzen dituzte, eta efizientzia- eta ekonomia-printzipioa aplikatuta, ezin dugu 30.267 espediente osoen kopiarik igorri; edonola ere, zure esku daude erabat, edozein kontsulta edo egiaztapen egiteko.

2014ko ikuskapen-planaren ikuskapen prozedurari dagokionez, oraindik ez da hura amaitu; horrenbestez, urte horretan hasitako espedienteak itxi gabe daude. Haren amaierako txostena amaitu bezain laster helaraziko dizugu.

– **2013an eta 2014an gizarteratze-errentaren kontrolarekin eta iruzurraren aurkako borroka-ekin lotuta eman diren ebazpenen kopurua.**

2013. urtea

Ez-betetzereen bat dela-eta ezetsi diren espedienteen kopurua: 457

Ez-betetzereen bat dela-eta baja eman zaien espedienteen kopurua: 61

Arau-hausteengatik zehapen espedienteen kopurua: 20

2014. urtea (urriaren 15ean)

Ez-betetzereen bat dela-eta ezetsi diren espedienteen kopurua: 712

Ez-betetzereen bat dela-eta baja eman zaien espedienteen kopurua: 94

Arau-hausteengatik zehapen espedienteen kopurua: 17

– **Gizarte Politiketako Departamentuak irekitako espediente administratibo osoen kopia bat; hain zuzen, 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera errenta erretiratzeko, murrizteko, ukatzeko, atzera botatzeko, berrikusteko, gutxitzeko itzultzeko edo antzekoetarako ebazpenak eman direneko espedienteak, gizarteratze-errenta kontrolatzeko eta iruzurraren aurka borrokatzeko neurri-planean zehazten diren arrazoietatik edozein dela-eta abiatutakoak.**

Errenta erretiratzeko, gutxitzeko, ukatzeko, atzera botatzeko, berrikusteko, murrizteko, itzultzeko edo horien antzekoetarako espediente administratiboek dagokienez, aurreko puntuetan jada adierazi den bezala eta efizientzia- eta ekonomia-printzipioak aplikatuta, ezin dugu bidali 1.361 espediente osoen kopia; espediente horiek, nolahi ere, zure eskura jartzen ditugu, edozein kontsulta edo egiaztapen egiteko.

– **Plan horretan gizarteratze-errenta kontrolatu edo erretiratzeko jokabidetzat jasota ageri diren arrazoiak, eta ez 2014ko apirilean plana onetsi izateren egitate administratiboa.**

Arrazoi substantiboak dira gizarteratze-errenta arautzen duen urtarrilaren 23ko 1/2012 Foru Legean jasotako ez-betetze kausak.

2013an eta 2014an antzemandako ez-betetzereen arrazoiaren xehetasunak erantsi ditugu. (13. dokumentua)

– **Gizarte Politiketako Departamentuak ezarri dituen berme, mekanismo edo neurri berririazkoak, gizarteratze-errentaren ematea kontrolatzeko eta iruzurraren aurka jotzeko hartutako neurrien aplikazioa egokia, proportzionatua eta bereziki arretatsua dela segurtatzekoak, ikertzen diren edo murrizketak edo erretiratzea aplikatzen zaizkien pertsona bakoitzeko unitateek edo familia-unitateek daukaten babesgabetasuna ez areagotzeari begira, eta, halaber, saihesteari begira aplikazio horrek era-**

gin ditzala proportziogabetasuna, anbiguotasuna, babesgabetasuna, aldebakartasuna, deskoordinazioa edo egoeren larritzea, zeren eta egoera horiek berez zailak baitira pertsonen eta familia-unitateen egoera larrien kasuetan.

Bermeak legezkotasun-printzipiotik berez heldu direnak dira; izan ere, Administrazioak horren arabera jokatu behar du, eta horri dagokionez, ez dira legeak ikuskapen bat jasotzen duen beste edozein herritarri ematen dizkion bermeez oso bestelakoak.

Horixe da informatu beharrekoa.”

2.3. Behin-behineko txostena Gizarte Politiketako Departamentuari helaraztea, alegazioak aurkezteko.

Behin erakunde honek behin-behineko txosten bat egin duenean Nafarroako Parlamentuak eskatutako behin-behineko testuari buruz, 2014ko azaroaren 24an Gizarte Politiketako Departamentuari igorri zitzaion, hark, egokitzen ikusten bazuen, hura zela-eta, 2014ko abenduaren 18a baino lehen, ohar edo alegazioak egiteko.

2014ko abenduaren 22an, Gizarte Politiketako kontseilariaren oharra jaso dira; haietatik batzuk kontuan hartu dira behin betiko testuan.

III. ESKATUTAKO TXOSTENA DELA-ETA EMANDAKO INFORMAZIOARI BURUZKO GOGOETAK.

Nafarroako Parlamentuari txostena egiteko eskaria oinarrituta dago “Gizarteratze-errenta kontrolatzeko eta iruzurraren aurka borrokatzeko Nafarroako Gobernuaren neurri-planean”.

Horrenbestez, ezer baino lehen, zehaztu beharra dago neurri-plan hori existitzen ote den, haren edukia ezagutu beharra dago eta jakin behar da zer eragin dauzkan gizarteratze-errentaren onuradun direnen eskubideetan.

3.1. Nafarroako Gobernuak gizarteratze-errenta kontrolatzeko eta iruzurraren aurka borrokatzeko duen neurri-plana.

Aipatu beharreko lehenengo ondorioa da ezen, termino juridiko eta administratiboetan, Administrazioak ez duela dokumenturik izapidetu “Nafarroako Gobernuak gizarteratze-errenta kontrolatzeko eta iruzurraren aurka borrokatzeko duen neurri plana” izenarekin.

Ez legoke, horren arabera, halako planik, izen eta eduki zehatz eta berariazko horrekin, hau da, organo eskudunak prozedura administratibo baten arabera onetsitako dokumentu gisa, horrek bertutuko baitzuen herritarrek edo ekintza zuzentzen

zaien beste hirugarrenek hura ezagutzea. Horrenbestez, ez dago espediente administratiborik, foru agindurik edo bestelako xedapenik Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak eskatutako txostenaren xedea den plana onesten duenik.

Gizarte Politiketako kontseilariak honakoa informatzen du horri buruz:

– Gizarteratze-errenta kontrolatzeko neurri-plana Nafarroako Gobernuak Gizarte Politiketako Departamentuko Gizarte Zerbitzuen ikuskatze planaren barruan dago.

– Gizarteratze-errenta kontrolatzeko Nafarroako Gobernuaren neurri-plana ez da berariazko plan bat, baizik eta Departamentuaren jarduketamultzoaren atal bat. Jarduketa horiek orientatuta daude bermatzera baliabide publikoak eskubidea duten pertsonengana eta familia-unitateengana heltzen direla.

Hala eta guztiz ere, Gizarte Politiketako Departamentuak jotzen du gizarteratze-errenta kontrolatzeko neurri-plan bat badagoela: berariazko planik ez dagoen arren, baliabide-publikoak eskubidea dutenengana iristen direla bermatzera orientatutako jarduketa administratiboaren multzoaren atal bat dira. Horri dagokionez, baieztatzen da plan hori existitu egiten dela, kontzeptu material moduan, halakotzat ulertuta erabakien eta berariazko ekintzen eta ekintza koherenteen multzo bat, xede jakin bati edo xede batzuei baliabideak esleitzeko, nahiz eta dokumentu bakar batean –aldi baterakoa nahiz iraunkorra– idatzita, zabaltzera emanda eta ezagututa ez egon.

Erakundeak Nafarroako Gobernuaren webgunean dokumentu bat aurkitu du, honako izenburuarekin: “Gizarte Politikak. Gizarteratze-errenta kontrolatzeko eta iruzurraren aurka borrokatzeko Nafarroako Gobernuaren neurri-plana 2014ko apirilaren 23koa da eta Gizarte Politiketako Departamentuak egindakoa da, azalean daukan ikurrari erreparatuz gero; hain zuzen ere, hura prentsa aurrean aurkezteari eta prentsa-ohar bidez iragarzteari begira egindako azala.

Honakoa da agiri horren helbide elektronikoa (2014ko azaroaren 20an oraindik ere internet bidez kontsulta zitekeen):

<http://www.navarra.es/NR/rdonlyres/F73E6384-4CE8-4329-967C-44F645BC71E0/281453/230414ps80.pdf>

Hamar diapositiba dira esaldi labur eta marrazkiekin; haietan, “kontrolleko neurri-plana” eta “iruzurra kontrolatzea” ideiak errepikatzen dira.

Badirudi, horrenbestez, plan gisa iragarri zela 2014ko ikuskapen planaren atal arrunt bat dena. Plan hori aurreko ekitaldietan bezala onetsi zen, eta bere edukiko berariazko neurri gisa ageri dira Departamentuaren jarduketari buruzko urteko ikuskapen-plana osatzen duten neurriak, zeinak ez baitagozkio berariaz gizarteratze-errentari.

Hartara, 2014. urterako Nafarroako gizarte politikaren arloko ikuskatze-plana onesten duen Gizarte Politiketako kontseilariaren apirilaren 25eko 262/2014 Foru Aginduaren VII.1 atalean, honakoa zehazten da:

“VII.1. programa.

Helburua: Laguntza ekonomikoak jasotzeko exijitzen diren baldintzen betetzeari buruzko egiaztapena.

– *Jarduketaren edukia:*

Ikuskapen zerbitzuak egiaztatuko du –egokien jotzen dituen bitartekoak erabiliz– modu frogagarrian betetzen direla laguntza ekonomikoak jasotzeko ezarrita dauden betekizunak.

– *Jarduketa-esparrua:*

Jasotako laguntza ekonomikoen hartzaileak”.

Gizarteratze-errenta kontrolatzeko eta iruzurraren aurka borrokatzeko Nafarroako Gobernuaren neurri-plan hori, berariaz taxaturik eta onetsirik, existitzen ez denez, erakunde honek ezin du sakondu prestazio publiko hori jasotzen duten herritarren eskubideetan dauzkan eraginei buruz.

Ez dago jasota, ezta ere, Garapenari Arreta Emateko eta Pertsonak Gizarteratzeko Zerbitzuaren eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen lantalde bat eratu denik (Gizarte Zerbitzuak Koordinatzeko Batzordea), iragarrita zegoen arren.

3.2. Gizarte Politiketako Departamentuaren ikuskatze-jardueraren gainbegiratzea, gizarteratze-errentari dagokionean.

Gizarte Politiketako Departamentuak igorritako dokumentazioa aztertu du gure erakundeak.

Dokumentazio horrek aukera ematen du egiaztatzeko gizarteratze-errentaren gaineko kontrolak egiten direla: batetik, eskariak izapidetzeaz arduratzen den unitate kudeatzaileak egiten ditu (aipatzen da 2014an 13.533 kontrol egin direla; hau da, espediente guztia kontrolatu direla), eta, bestetik, Ikuskapen Zerbitzuak egiten ditu (aipatzen da Ikuskapen Zerbitzuak 2014an 427 espediente aztertu dituela).

Bistan denez, bi unitateen gaineko kontrol gehienak unitate kudeatzaile batek egiten lituzke,

zeren eta izapidetutako espediente guztiak kontrolatutzat jotzen baitira; Ikuskapen Zerbitzuak egiten dituen kontrolak, berriz, parte txikiena dira.

Ateratzen den beste ondorio bat da ezetsitako espediente kopurua handitu egin dela eta gizarteratze-errentaren gaineko ikuskatzeek ere 2013tik 2014ra gora egin dutela.

Eta hirugarrena da aipatutako dokumentazioan saihestu egiten dela gizarteratze-errenta dela-eta “iruzurrak” hitz egitea, eta, horren orde, “ez-betetzearen” kontzeptuaz hitz egiten dela (zeina, agerikoa denez, ez baita berdina, zeren eta legearen ez-betetze oro ez baita iruzurra).

Hartara, Gizarte Politiketako Departamentuak emandako datuek aukera ematen dute honakoa egiaztatzeko:

A) Izapidetutako espedienteak.

2013an, guztira, gizarteratze-errentaren 16.734 espediente izapidetu ziren; 2014an, berriz, urriaren 15era arte, 13.533 espediente izapidetu dira.

B) Ezetsitako espedienteak.

Izapidetutako espediente guztietatik **posible diren arrazoi guztiengatik honakoak ezetsi ziren:** 2.142 espediente 2013an eta 2.499 espediente 2014an; hau da, guztizkoaren % 12,80 eta % 18,47, hurrenez hurren.

Halaber, Departamentuaren arabera, 1/2012 Foru Legearen edo 120/1999 Foru Dekretuaren **“ez-betetzeren bat” dela-eta** honakoak ezetsi ziren: 457 espediente 2013an eta 712 espediente 2014an (urriaren 15era arte). “Ez-betetzeak” egiaztatzeko fase arrunt honetan ezetsitako espediente kopurua nahiko txikia da: % 2,73, 2013an, eta % 5,26, 2014an, izapidetutako espediente guztiak hartuta.

“Ez-betetzearen” arrazoiaren artean, handitik txikirako ordenan, honakoak ageri dira, espediente kopuruari dagokionez:

– Familia unitatean izandako aldaketak ez jakinaraztea ezarritako epeetan.

– Beharrezkoak diren datuak ezkutatzea edo informazio okerra ematea.

– Gizarteratzeari buruzko akordioa ez betetzea.

– Egoera ebaluatzeko lana ez erraztea eta laguntzarik ez ematea.

– Gizarteratzeari buruzko akordioa ez sinatzea.

– Ondarea ez aurkeztea gizarteratze-errenta eman aurreko aldian.

- Lan eskaintza egoki bati uko egitea.
- Zehapenaren aldiaren eskari bat egitea.

Nolanahi ere, kalifikatu beharko balitz zein diren arrazoi horietatik balizko “iruzur” batekin (engainatzeko asmoa) lotuta egon daitezkeenak, erakunde honen ustez, aipatutakoetatik, gehienez ere, beharrezkoak diren datuak ezkutatzearekin lotutako arrazoiak leudeke; eta horrek kasuak murriztuko lituzke: 2013an, 124 izanen liraterke eta 2014an, berriz, 189 kasu; hau da, izapidetutako espediente guztien % 0,74 eta % 1,40, hurrenez hurren.

Bestelako arrazoi batzuk gehituta ere, ehunekoak oso baxua izaten jarraituko luke, izapidetutako espedienteen kopuruaren proportzioan.

C) Egindako ikuskatzeak.

2013an, Ikuskapen Zerbitzuak 247 espediente berrikusi zituen. 2014an (urriaren 15era arte), Ikuskapen Zerbitzuak 427 espediente berrikusi zituen.

Departamentuak baieztatzen du aukeraketa modu aleatorioan egin zela.

Horrenbestez, Ikuskapen Zerbitzuaren berrikuspenek espedienteen guztizkoan egiten duten portzentajea ere baxu samarra da: % 1,48, 2013an eta % 3,16.

D) “Ez-betetzea” dela-eta baja emandako espedienteak.

2013an, ez-betetzaren bat tarteko, 61 espedienteri baja eman zitzairen. Eta 2014an (urriaren 15era arte), ez-betetzaren bat tarteko, 94 espedienteri baja eman zitzairen.

Portzentaje txikiak dira izapidetutako espedienteen guztizkoan: % 0,36, 2013an, eta % 0,69, 2014an.

13. dokumentuaren azterketak aukera ematen du egiaztatzeko gizarteratze-errenta jasotzearen arloko bajak, bai 2013an, bai 2014an, ez daudela hertsiki iruzurrarekin lotuta.

Honakoak dira baja-arrazoiak:

- Betebehar edo baldintzak ez betetzea (3, 2013an; 12, 2014an).
- Gizarteratze-akordioa ez betetzea (6, 2013an; 13, 2014an).
- Familia unitatean izandako aldaketak ez jakinaraztea ezarritako epean (24 eta 37, hurrenez hurren).
- Gizarteratze eta laneratze akordioa ez betetzea (3, 2014an).

– Datuak ezkutatzea edo informazio okerra ematea (24, 2013an; 21, 2014an).

– Enplegu eskaintza bati ezezkoa ematea (2, 2013an; 4, 2014an).

– Onuradunari legokiokoen prestazio, laguntza edo subsidioari uko egitea (1, 2013an; 4, 2014an).

Ikus daitezkeen bezala, bajaren arrazoietako batzuk onuradunaren ukotik (4, 2014an) edo enplegu-eskaintzei ezezkoa ematetik ere heldu dira. Kasu gehienek arrazoiak da familia unitatean izandako aldaketak ez jakinaraztea ezarritako epeetan (37, 2014an; hori, askotan, ez-betetze formal bat izan daiteke, ez-betetze substantiboa baino gehiago).

Egiazki, iruzurrarekin lotutakoak izanen liraterke datuak ezkutatzetik heldu direnak, eta hori dela eta kasuak 2013an 24 izatetik 2014an 21 izatera pasatuko liraterke.

E) Zehapen-espedienteak

2013an, arau-hausteengatik 20 zehapen-espediente izapidetu ziren. 2014an (urriaren 15era arte), 17 zehapen espediente izapidetu ziren.

Beste behin, portzentaje txikiak dira izapidetutako espedienteen guztizkoan: % 0,12, 2013an; eta % 0,13, 2014an.

Zehapen espediente guztiak iruzurretik heldutakotzat hartuta ere –eta hori gehiegizko presuntzioa da–, iruzur kasuak 44 izanen liraterke 2013an, eta 38, berriz, 2014an, urriaren 15era arte.

F) Ezespenen, ikuskatzeen, bajen eta zehapen espedienteen ugaltzea.

2014an (urriaren 15era arte), Gizarte Politiketako Departamentuak gizarteratze-errentaren gaineko kontrola areagotu du, 2013. urtearekin alderatuta.

– Edozein arrazoiengatik ezespeneak gehiago izan dira, eta 2.142 izatetik 2.499 izatera pasa dira (% 16,67 gehiago), aldi laburrago batean.

– “Ez-betetzeengatik” ezespeneak gehiago izan dira, eta 457 izatetik 712 izatera pasa dira (% 55,8 gehiago), aldi laburrago batean.

– Ikuskatze gehiago egin dira, eta 247 izatetik 427 izatera pasa dira (% 72,87 gehiago), aldi laburrago batean.

– Ez-betetzaren batengatik espediente gehiagori baja eman zaie, eta 61 izatetik 94 izatera pasa dira (% 54,1 gehiago), aldi laburrago batean.

– Zehapen-espeditenteen kopuruak 20tik 17ra egin du behera (% 15 gutxiago), baina denborartea laburragoa izan da; horrenbestez, azkenean, zehapen-espeditenteen 2014ko kopurua 2013koa baino handiagoa izan daiteke.

G) Iruzurra egotea.

Datu horien zehaztasunaz haratago, erakunde honek baloratzen duena, emandako informaziotik abiatuta, da gizarteratze-errenta lortzearen arloko “iruzurra” (engainuaren kontzeptu juridikoari erreparatuta) oso txikia dela, izapidetutako eskarien eta jasotako laguntzen guztizko kopuruari erreparatuta.

H) Ikuskatze- eta berrikuspen-jarraibide orokor, arrunt eta homogeneousak

Aztertutako informazio honek guztiak aukera ematen du esateko gizarteratze-errentaren kontrola 2014an, berriazko plan baten arabera baino gehiago, 2013ko arau- eta administrazio-jarraibide eta jarraibide orokor beren arabera izan dela.

Kontrol hori unitate kudeatzaile batek modu arruntean garatu du, eskariak izapidetzearen kariatara, eta neurri txikiagoan, Ikuskapen Zerbitzuak, urtero Gizarte Politiketako Departamentuak onesten duen ikuskapen planaren esparruan.

Ikuskapen Zerbitzuaren 2014ko jarduketa 2013an egin zen modu arrunt eta ohiko beraren arabera gauzatu da, Departamentuak aleatoriotzat jotzen dituen irizpide batzuen arabera ikuskatzeen bitartez; izan ere, foru legean ezarritako baldintzak onuradunek ez-betetzearen ondoriozko baja batzuk aplikatu dira prestazioaren ordainketan, eta urtarrilaren 23ko 1/2012 Foru Legearen arabera izapidetutako zehapen espeditente batzuk ireki eta ebatzi dira.

Nolanahi ere, ikusten da 2013tik 2014ra gizarteratze-errentari buruzko ikuskatzeen kopuruak gora egin duela.

IV. ONDORIOAK.

Aurrekotik guztitik, honako ondorioak ateratzen ditugu:

Lehena. Termino juridiko eta administratiboei erreparatuta, ez da existitzen “Nafarroako Gobernuak gizarteratze-errenta kontrolatzeko eta iruzurraren aurka borrokatzeko duen neurri-plana” izenekorik, hari buruzko txostena eskatu baitu Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak.

Gizarte Politiketako Departamentuak ez zuen egin “Gizarteratze-errenta kontrolatzeko eta iruzur-

rraren aurka borrokatzeko neurri-plana” izaneko dokumentu administratiborik.

Hala eta guztiz ere, Departamentuaren ustez plan hori existitu egiten da, kontzeptu material moduan, halakotzat ulertuta erabakien eta berriazko ekintzen eta ekintza koherenteen multzo bat, xede jakin bati edo xede batzuei baliabideak esleitzeko, nahiz eta dokumentu bakar batean –aldi baterakoa nahiz iraunkorra– idatzita, zabalzera emanda eta ezagututa ez egon.

Garapenari Arreta Emateko eta Pertsonak Gizarteratzeko Zerbitzuaren eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen lantaldea (Gizarte Zerbitzuak Koordinatzeko Batzordea) ez da sortu, iragarrita zegoen arren.

Bigarrena. Gizarte Politiketako Departamentuak gizarteratze-errentaren gainean 2014an egin duen kontrolak 2013ko araugintza-jarraibide eta jarraibide administratibo eta orokor berei jarraitzen die, eta gizarteratze-errentaren gaineko kontrol jarduketa horiek unitate kudeatzaile batek modu arruntean garatzen ditu, eskariak izapidetzearen kariatara, eta neurri txikiagoan, Ikuskapen Zerbitzuak, urtero Gizarte Politiketako Departamentuak onesten duen ikuskapen planaren esparruan.

Hirugarrena. Gizarte Politiketako Departamentuak gizarteratze-errentaren gainean 2014an egindako kontrol-jarduketa 2013koa baino handiagoa izan dela jo daiteke, egindako ikuskatzeen kopuruari eta betebeharren ez-betetzeagatik izandako bajen kopuruari begiratuta.

Laugarrena. Gizarteratze-errenta jasotzearen arloko iruzurraren kontzeptu zehatzari buruzko datuak eskatu direnean, Departamentuak ez du zehaztu kontzeptu horri buruzko inongo daturik, zeren eta “ez-betetzeen” adierazpidean sartzen baititu kasu guztiak, modu orokorrean.

Bosgarrena. Departamentuak emandako datuetatik abiatuta, erakunde honek jotzen du esan daitekeela oso txikia dela onuradunek (baliabide oso eskasak dituzten pertsonak eta familia-unitateak, gizarte-bazterketaren arrisku-egoeran daudenak) gizarteratze-errentaren eskatzearen eta lortzearen arloan dagoen “iruzurraren” bolumena (prestazioa lortze aldera engainatzeko borondatea edukitzea dela ulertuta).

Eta hori guztia jakinarazi behar diot Nafarroako Parlamentuari erakunde horrek egin digun txosten-eskariari erantzuteko.

Iruñean, 2014ko abenduaren 23an

Nafarroako Arartekoa: Francisco Javier Enériz Olaechea

